

Igandegoizaldeko ordubietan **ordu aldaketa egingo da**



Bihar Arbizun egungo duatleta onenak lehiatuko dira. Goizez, haur duatloia izanen da, arratsaldean, berriz, helduena



Kirolak >> 11



Kulturen arteko zubi lanak egiten dituzte boluntarioek.



Natxo de Felipe Haize Berriak bandarekin

Bihar, Altsasun, 17:00etan eta 18:30ean

>> 14

Kultur Bitartekari Zerbitzua boluntarioekin aurrera

>> 5

Bakaikuko inkesta emateko aste bat gehiago

>> 7

Sakana 2020 Plan Estrategikorako ekarpenak 4ra arte

>> 5

Irurtzunen lau proiektu aurrekontu parte-hartzaileetan

>> 7

Goi tentsioko linearen kontra igandean

>> 8

Sakatxartel asteburuak sariak banatuko ditu

Beleixeguaixe txartela dutenek asteburuan erosteko erabiltzen badute, zozketan sartuko dira

>> 5

Altsasuko historiaren atal baten aurkezpena

Altsasu Memoria taldeak gaur aurkeztuko ditu 1950 urtera arte jaso dituen istorio izkutuak

>> 6

Arbizuk irabazi du Futsal Sakana txapelketa

Racing San Migelekin launa berdindu ondoren, penaltitan lortu zuten garaipena arbi-zuarrek

>> 12



ZORION agurrak



Argazkiak emateko lekua: • Altsasu: Foruen Plaza 23-1 • Irurtzun: kate informatika, Bi ahizpak, 9 (atzea) • Ordainketa, Guaixeren bulegoan edota 3035 0018 47 0181012564 kontu zenbakian ingre-satuta egin daiteke.

ARGAZKIAK ASTEBETE LEHENAGO EKARRI, TOKIRIK GABE GELDITUKO ZARA BESTELA!



Jarraitu
gaitzazu

Eta orain... 4 euro argazkia eta Pirritx, Porrotx eta Marimototsen opari-papera doan! Bazkideek 3,50 euro!

LEHALSA

Leiho-Isolatzailak • Aluminioa-P.V.C-Mistoak

GURE
REMOVE
PLANA
%20^{ra}
arteko
deskontua

Tailerra eta erakusketa
Zuntaipe auzoa z/g (N1 zaharra), Altsasu
Telf.: 948 468 559
info@lehalsaventanas.com
www.lehalsaventanas.com



Atikilt
ZORIONAK eta musu
asko gure mutiko han-
diari bere 8. urtebete-
tzean.



Inhar eta Ekhi
ZORIONAK pottokok!!
Zuek zarete gure Ekhi eta Inharra.
Aupa zuek!!!
Maite zaituztegu.



Irati Igoa
ZORIONAK mailltia!
Jadanik 13 urte! Egun
ona pasa familia guz-
tiaren partetik. Askok
maite zaitugu!



**Garazi Garasa
Guerrero**
ZORIONAK maitea!! Mun-
duko muxu guztiak zure-
tzat, polita!! Falan soma-
tzen zaitut... Izeba Maria
Josefa.



**Garazi Garasa
Guerrero**
ZORIONAK ratita! Zure hu-
tsunea nabaritzen dut. Mai-
te zaitut. Hogei muxu zure-
tzat, nire ratita hori. Joseba.
Munduko muxu guztiak
zuretzat. Manoli.



**Garazi Garasa
Guerrero**
ZORIONAK printzesa!! Ho-
gei urte maitea, gure nesaki
xarmenta. Falan sumatzen
zaitut. Maite zaitut, maitea.
ZORIONAK eta muxu asko.
Zuretzat. Manoli.



Olatz Arregi
Apirilak 2a iristear dago
eta, 7 urte beteko dituzu!!
Primeran pasatzea espero
dugu eta ea merienda goxo
bat prestatzen duzun.
ZORIONAK eta muxu asko.



**Alain Alberdi
Garcandia**
ZORIONAK guapisimo zure
14. urtebetetzean!! Familia
guztiaren partetik, jarraitu
orain arte bezain jatorra.



Aitz
ZORIONAK Aitz!!
Urtebete poztasuna
oparitzen, ttikitto!!
Muxu handi bet
itxeko denen partetik.



Aitz eta Jabi
ZORIONAK Aitz eta Jabi!!
Astelehenean, Aitzek estrei-
na urtia. Jabik, urteen bat-
zuek geixoo. Primeran ospa-
tu, bikote. Askok nehi di-
zubiau. Itxekuek.



**Nahia Senar
Ormazabal**
Larunbatean 8 udaberri be-
teko dituzu lorexoi! Segi
orain bezain alai eta maite-
garria izaten. Muxu asko
denon partez.

marsuak-apiribilak

28-4

Sakanan antolatzen diren ekitaldien berri emateko: gutunak@guaixe.net

Musika

Mantren kontzertua. Martxoaren 28an, ostiralean, 20:00etan Altsasuko Namaste zentroan. Tokia hartzeko deitu 669 616 913ra.

Pablo Carbonell. Martxoaren 28an, ostiralean, 22:30ean Olatzagutiko kultur etxean.

Natxo eta otsoa. Martxoaren 29an, larunbatean, 17:00etan eta 18:30ean Altsasuko lortia kultur gunean. **Haize Berriak banda eta Natxo de Felipe.**

Akordeoi kontzertua. Martxoaren 29an, larunbatean, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Pablo Sarasate kontserbatorioko ikasleak.**

Haur kantari jaialdia. Martxoaren 30ean, igandean, 18:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Euskal Kantuzaleen Elkarte.**

Antzerkia

Konpost eroak. Martxoaren 29an, larunbatean, 18:00etan Irañetako frontoian. **Zirika Zirkus.**

Eskola ondoko jolasak. Martxoaren 30ean, domekan, 17:00etan Olatzagutiko kultur etxean. **Tdiferencia.**

Proiektzioa

Irango mendietan eskiatzen. Martxoaren 29an, larunbatean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Ruth Aguado.**

Zinema

Días de pesca en la Patagonia. Martxoaren 28an, ostiralean, 21:45ean eta martxoaren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Agosto. Martxoaren 28an, ostiralean, 22:00etan eta 30ean, domekan, 20:10ean Altsasuko lortia kultur gunean.

Ernest eta Celestin. Martxoaren



30ean, domekan, 17:00etan Altsasuko lortia kultur gunean.

Mendi irteera

Urbasa berezia. Martxoaren 30ean, igandean. **Altsasuko Mendigoizaleak.**

Txirrindula irteerak

Larregoi. Martxoaren 30ean, domekan, 8:30ean Altsasuko Zumalakarregi plazatik eta 9:20an Bioitza kanpinetik. 57 km. **Burunda mendi bizikleta taldea.**

Erakusketak

Pintura erakusketa kolektiboa. Martxoaren 30era arte Irurtzungo La Tahonan eta Pikuxarren.

Saiak, elfoak, marioratzak, gizonak eta emakumeak. Apirilaren 5era arte, astegunetan 18:30etik 21:00etara eta domekan 19:00etatik 21:00etara Altsasuko lortia kultur gunean.

Clarity. Apirilaren 6ra, astegunetan 18:00etatik 20:00etara eta larunbatean 11:00etatik 14:00etara Irurtzungo udaletxeko batzar gelan. **Crana fundazioa.**

Hitzaldiak

Hondakinen errausketa/balorizazioa. Martxoaren 28an, ostiralean, 19:00etan Irurtzungo udaletxean. Hizlariak: Cementos Portland, 3MB eta Olatzagutiko Udaleko ordezkariak.

Erabakitze eskubidea.

Martxoaren 29an, larunbatean, 11:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean. **Hizlariak: Jose Miguel Nuin (IUN-NEB), Alvaro Baraibar (Geroa Bai) eta Bixente Goikoetxea (EH Bildu).**

Bestelakoak

Memoria I: 76-1950. Martxoaren 28an, ostiralean, 19:00etan Altsasuko lortia kultur gunean. **Altsasu Memoria.**

Deialdiak

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 28an, ostiralean, 20:00etan Irurtzun, Uhartea Arakil, Lakuntza, Arbizu, Etxarri Aranatz, Bakaiku, Altsasu eta Olaztin. **Hileko azken ostiraleko elkarretaratzea.**

247 taupada lurrarekin. Autopista elektrikoaren kontrako eguna. Martxoaren 29an, larunbatean, 10:00etatik aurrera Iturmendin. Martxoaren 30ean, igandean, 9:00etatik aurrera Irurtzundik mendi marxa.

Euskaraz Bizi Egun txikia. Martxoaren 29an, larunbatean, 18:00etatik aurrera Etxarri Aranazko plazan. **EHE.**

Euskal Presoak Euskal Herrira! Martxoaren 30ean, domekan, 20:00etan Altsasuko plazan, elkarretaratzea.

Sakanako Langabetuen Asanblada. Martxoaren 31n, astelehenean, 15:30ean Altsasuko Gure Etxea eraikinean.

H.L.P.P.
- Motor Mekanikari Laguntzailea

ERDI-MAILAKO ZIKLOA (E.M.)
- Soldadura eta Galdaragintza
- Mendi Ertaineko Kirol Teknikaria
- Mantenu-Elektromekanikoa

GOI-MAILAKO ZIKLOA (G.M.)
- Industri-Mekatronikoa



Ate irekien jardunaldia
Apirilak 2

Centro Integrado Politécnico

FP SAKANA LH

Ikastetxe Integratu Politeknikoa

948 564 815 <http://fpsakanalh.educacion.navarra.es/>



Sakanan bizi, lan eta ikasi

Izena emateko epea: Apirilaren 7tik 15era

Burunda Txirrindulari Taldea 2014



Txirrindularien harrobi.
Burunda Taldeak
Altsasuko Iortia Kultur
Gunean egin zuen 2014ko
aurkezpena. Pablo
Jimenezek zuzentzen
duen klubak 291 bazkide
ditu eta 26.000 euroko
aurrekontua erabiliko du
denboraldiari aurre
egiteko. Eskoletatik hasita
jubenetaraino, guztira 38
txirrindulari trebatuko
dira. Horretaz gain,
zikloturismo taldean 25
kide eta BTT taldean 45
kide aritzen dira. Aurtten
10 lasterketa antolatuko
ditu Burunda klubak.
Aurkezpen ekitaldian
omenalditxoak egin
ziztaien Burundatik
Gipuzkoako kadeteen CAF
taldera salto egin duen
Maialen Aramendiari eta
txirrindularitza utzi duen
eta Burundan trebatu zen
Jorge Azanzari.



HASIBERRIAK

Eskolak (24). Hasiberriak: Pablo Senosiain, Jon Aierbe, Ekaitz Perez, Iker Begiristain, Mikel Lizarraga, Asier Etxeberria, Mikel Regil, Leonardo Macedo, Aitor Barandalla, Ander Villalobos, Mikel Unzilla eta Julen Guerrero. Kimuak: Jon Chamorro, Oihan Etxeberria, Martzel Etxeberria, Iker Mintegi eta Willy Israel Torres. Haurrak: Unai Villalobos, Jon Ander Borrega, Ailetz Lasa, Iosu Etxeberria, Barkarne Gonzalez eta Iosu Jaka.
Babesleak: Katealde, Tasca Don Jose, Cafes San Donato eta Carburantes Azazeta.
Entrenatzaileak: Inaki Lasa, Ruben Aramendia, Jesus Etxeberria eta Gorka Mintegi.



Kadeteak (8). Josu Gabirondo, Alex Unzilla, Eneko Vilar, Asier Juanez, Raul Granado, Oihan Vinaigre, Hodei Zia eta Asier Etxeberria.

Babesleak: Quesos Albeniz eta Makor.
Entrenatzaileak: Tomas Martinez.



Juniorrak (6). Mikel Agerre, Asier Ormazabal, Ibai Azurmendi, Aritz Irigoien, Eneko Aramendia eta Alvaro Rosado.
Babesleak: Quesos Albeniz eta Makor.
Entrenatzaileak: Andoitz Azurmendi, Inaki Romero eta Jon Irigoien.

BABESLEAK

Albéniz Quesos
AZAZETA S.L.
LACUNZA
Blender
MAKOR S.L.
deportes INTHOSTIA kirolak
Altsasuko Udala
Albeniz
Carburantes
San Donato Cafes
La Tascas de Don Jose
C.C. LA MOREA C.C. ITAROA
KATEALDE Productos artesanos del pais
BIKAIN GAZTAKA S.L.
BERRI BIKES
RURAL KUTXA GAZTAKA S.L.
IONEO
LAKET



Rosa Otxoa-Errarte Goikoetxea

Finantza Etikoak

astekoa

barrutik kanpora

Azken urte hauetan ikusi ditugunak ikusi ondoren (preferenteak, zor subordinatua, erreskateak...) zaila egiten zaigu pentsatzea bi hitz horiek, finantzak eta etika, batera joan daitezkeenik. Baina badaude jarduerafinantzarioa beste modu batera burutzeko prest dauden proiektuak eta beraiengan pentsatu behar izan dut aurkeztu den Sakana 2020 Plan Estrategikoari buruzko berriak ikustean.

Garapen iraunkorrerako laguntza finantzarioa eskatzerakoan ezagunenak zaizkigun Caixa, BBVA, Santander eta bestelako etara jo beharrean, jo genezake baita onura desberdinak kontuan hartzen dituzten beste erakunde batzuetara; onura ekonomikoa, noski, baina soziala eta ingurumenarekikoa ere kontuan hartzen dituztenetara. Honelako entitateen artean batzuek luza-ro daramate lanean gure artean,

Triodos Bank edo Fiare dira ezagunenak. Beste batzuk lehenengo pausoak ematen ari dira, adibidez Koop 57, Katalunian sortu zena 1996an eta orain Euskal Herrian ezabaldudokodena. Ekonomia sozialaren barnean koka daitezkeen proiektuak finantzatzeko dituzte eta, noski, aurreztaileen gordailuak jasotzen dituzte horretarako. Horregatik denok hartu dezakegu parte sistema berri honetan.

Gure diruak gizarte bidezkoago eta berdintsuago bat sortzeko dugun potentzialaz ohartzen bagara aldaketa hurbilago izango dugu. Zein jarduera finantzatzeko dugun eta nolako gizarte eraiki nahi dugun erabakitzea gure esku dago. Zeini eta zertarako uzten diogun gure dirua erabaki garrantzitsua da gizarte osoarendako, gogoeta sakon bat egitea eskatzen digun erabakia, baita gure instituzioei ere.

Sarera terapia bila

Zertaz idatzi? Zer komunikatu? Betiko topikoetan erori behar ote? Polemikari ateak ireki? Probokazioaren iratzargailua martxan jarri esnatzeko? Larunbaterako Iruñeko manifestazioaz? Idatz litekeen adjektiboa hautatzea, zaila. Ugaria eta arrakastatsua, batzuentzat; orain gutxi Nafarroan aldaketa politikoa aldarrikatzeko deialdiak izandako erantzun jendetsu eta masiboarekin alderatuta. Adjektibo onargarria lotzeko beldurra. "Hilaren 22an euskararen alde, euskararen aurkako erasoak salatzen eta euskaraz bizitzeko eskubidea babesteko manifestazioak" ez zuen erantzun hobe merezi eta behar?

Ezkortasunaren arriskua bartzerteko terapia, bizi dugun egoera eta geure buruak nahiz jokalmoduek ulertzeko errezeta saretik iritsi zaigu. Itsumenaren aurkako antidoto bikaina. Sarean bolo-bolo dabilen "Espainiar laguna: Moreno Cabrerari elkarrikeria TVE" delakoa. Erdaraz, bai, gaztelaraz. Baina euskaldunok behin eta berriz entzun beharrekoa. Bertsio originalean izan arren ez digu kalterik egingo. Mesede galanta, bai. Julio Sotoren Nazioa den hizkuntza, Euskara, maiuskulaz, aintzat hartu eta baloratzen eraman gaitzakeen hitz argi bezain garbiak. Iñigo Aranbarririk Berrian laburbiltzen duenez "Moreno Cabrera espainiarrekin adiskidetzen zaituen pertsona horietakoa da. Bestela esanda, norbera ere jarrera negargarrietan ez erortzeko antidoto ezinbestekoa."

Norberak erabaki behar zein diren bere "jarrera negargarriak" eta jokaera aldatu, jakina.

Entzuteko: Idatzi bilatzailean: Entrevista a Juan Carlos Moreno Cabrera en "Para todos La 2" edo www.youtube.com/watch?v=rA2ghdnDoDM



Aizpea, Irurtzungo euskaltzaileen topagunea

hara zer dien

Errehabilitazio anbulatorioa Josefina Arregui klinikan

Errehabilitazio fisikoa funtsezkoa da Josefina Arregui Klinikako erabiltzaileen tratamenduan. Gure Klinikako errehabilitazio fisikoa ematen zaie Ospitaleratze Unitateko eriei eta Eguneko zentroaren erabiltzaileei (behar baldin badute). Gainera, Errehabilitazio Anbulatorioko zerbitzua ere ematen da.

Duela 10 urte baino gehiago sortu zen Josefina Arregui Kli-

nikako Errehabilitazio Anbulatorioaren zerbitzua, zaharren errehabilitazio fisikoaren beharretarako.

Helburua da bakoitzaren baldintza fisikoak ahal diren onenak izan daitezela, autonomia eta bizitza kalitatea handiagoak lortzen baitira horrela.

Zaharren patologia eta eritasun ohikoenak tratatzen dira (neurologikoak, hezurretakoak, arnas-

aparatukoak, kardiobaskularrak, endekapenezkoak...).

Gorputz ariketa da tratamenduaren oinarria. Horren bidez baldintza fisikoaren zenbait alderdi lantzen ditugu: indarra, erresistentzia, arintasuna, oreka, ibiltzea, gaitasun aerobikoa... norberaren beharrei egokituak beti.

Bakarkako saioak dira, Klinikako fisioterapeuta batek zuzen-

duak. Bakoitzak 60' irauten du, astean 1-5 egunetan.

Fisioterapeutak lehen balorazio bat egiten du eta zehazten ditu xedeak eta errehabilitazio saioen maiztasuna.

Tratamenduaren hasieran aurreikusitako helburuak betirik, alta agiria ematen zaio erabiltzaileari.

Josefina Arregui

gutunak

Karabinak eta heriotza

Maidar Jaka

Sabelaren alde batetik sartu zen perdigoia, bidean topatutako heste buelta guztiak zulatu zituen eta sabelaren beste aldetik atera zen. Odol hustuz joan zen eta peritonitisak izugarriko oinazeak sortu zizkion. Bi eguez hil ezinik egon zen gure katutxo. Inork ez du merezi honelako heriotzarik. Herrietan ohituta gaude haurrak eta ez hain haurrak txori, katu eta zuhaitzei tiro egiten ikusten. Karabinak egokitutako lekuetan "diana" ezberdinei tiro egiteko dira, INOLA ERE EZ animalia edo zuhaitzei tiro egiteko. Hegaztiak eta landareak ingurumen legeek babesten dituzte, eta etxeko animaliei tiro egitea berriz kode pena-

Atal honetan ahalik eta iritzi gehienek tokia izan dezaten **1.500 karaktere** (espazioekin) baino gehiago duten gutunik EZ DA ONARTUKO. Karaktere kopuru horretatik gorako gutun guztiak LABURTU egingen dira. Gutunean izen-abizenak, telefonoa, helbidea eta Nortasun Agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Gutunak asteazkeneko goizeko hamarretarako egon behar dira gurean; bestela, ez da aste horretan publikatuko. Guaixe aldizkariak ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik. Zure iritzia helarazteko: **Foru plaza 23, 1 Altsasu; gutunak@guaixe.net edo 948 564 275 telefonoa.**

lak zigortzen du. Tratu txarrak dira!! Batean nahiz bestean ISUNAK jaso daitezke. Tristeia da horrelako argumentuetara jo behar izatea, onez-onean ezaldugu ulertzen guez gainerako izaki bizidunei ere errespetua zor diegula eta bizitzeko eskubidea dutela?

objektibo tik



Toti Martinez de Lezea Etxarrin:
Andra Mari ikastolak gonbidatuta, Toti Martinez de Lezea idazle ezaguna Etxarri Aranatzan izan zen asteazkenean. Hiru topaketa egin zituen. 5 urteko umeei Bazen behin... bildumako ipuinak kontatu zizkien eta LH3-ko ikasleekin Nurren abenduren inguruan aritu zen. Azkenik, hitzaldi irekia eskaini zuen txiki geratu zen Kultur Etxean.

objektibo tik: gutunak@guaixe.net

Guaixe

ERREDAKZIO BURUA: Alfredo Alvaro Igoa • guaixe@guaixe.net
ERREDAKZIOA: Maidar Betelu Ganboa
MAKETATZAILA: Ainhoa Etxebarria Pikabea
PUBLIZITATEA: Maria Saez de Albeniz • publizitatea@guaixe.net
eta Eneida Carreño Mundiñano • publi@guaixe.net
ERREDAKZIO LAGUNTZAILEAK: Erkuden Ruiz Barroso eta

Maialen Huarte Arano
ZUZENTZAILEA: Felix Alzelai
ARGITARATZAILA: Bierrik Fundazioa. Foru plaza 23-1. 31800 Altsasu • 948 564 275 • 948 562 107 • 618 882 675
KOORDINATZAILA: Ainhoa Urretagoiena Arruabarrena • bierrik@guaixe.net
DISEINU ZERBITZUA: Guaixe Komunikazioa • Amaia Amilibia Salgado • argi@guaixe.net
ADMINISTRAZIOA: Gixane Andueza Goikoetxea
LEGE GORDAILUA: NA-633/1995
TIRADA: 3.200

LAGUNTZAILEAK:

Mank
s a k a n a

BAZKIDEAK

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikako Salburordetza

TXIRRINDULARIA ZAURITUTA: Astelehenean, 22:12an, auto batek txirrindulari bat harrapatu zuen Akinorruti industrialdean. Kolpearen ondorioz, 50 urteko txirrindularia ezponda batera erori zen. Handik Altsasuko parkeko suhiltzaileek atera behar izan zuten. Ospitalera eraman zuten.

laria ezponda batera erori zen. Handik Altsasuko parkeko suhiltzaileek atera behar izan zuten. Ospitalera eraman zuten.

sakanerria >>

SAKANA

Sakanako Plan Estrategikoa herritartzen

Apirilaren 3ra arte aurkeztu daitezke ekarpenak garapena@sakana-mank.com helbidean

Astelehenean hasi zuten Iker Manterolak (Sakanako Garapen Agentzia), Susana Mendinueta (Cederna-Garalur) eta Joseba Garmendiak (Sakantzen Sarea) Sakanako 2020 Plan Estrategikoa (SPE) aurkezteko erronda. Altsasun 25 bat pertsonaren aurrean eman zuten planaren berri. Irurtzungo udaletxean 22 bilduziren asteartean eta Etxarri Aranzako kultur etxean, berriz, dozena inguru izan ziren SPEren berri jaso zutenak herenegun.

Manterolak planaren aurrekariaren inguruan azalpenak eman zituen. Garmendiak hartuzion lekuko planaren lau esparruen ardatz nagusiak azkar batean errepasatzeko. Mendinueta, berriz, planaren kudeaketaren nondik norakoak azaldu zituen. Azalpen guztien jarraipen egokia egiteko Sak-in kontsulting-eko kideek argibideak jasotzen zituen liburuxka banatu zieten parte-hartzaileei sarreran. Galde-erantzunen txanda zabaldu zen ondoren eta planaren finantziazioa, emakumearen parte hartzea, elkar-lana eta beste izan ziren hizpide.

SPE www.sakanagaratzen.com-en kontsultatu daiteke. Atari berean prozesu parte-hartzailean zehar lan-talde bakoitzean egin diren diagnostiko osoak eta AMIA taulak kontsulta daitezke. SPE aberasteko sakandarrei ekarpenak egitea eskatu diete eta horretarako epea apirilaren 3ra arte dago zabalik. garapena@sakana-mank.com helbidera bidali behar dira ekarpenak. Lan batzordeak aztertu eta Sakanako Sozio-ekonomia Behatokiak apirilaren 12rako azken oniritzia emanen dio planari. Udaletan aurkeztuko da oniritzia emateko.



Plana ezagututa ekarpenak egiteko aukera dugu sakandarrok.

Boluntarioek bermatu dute kulturarteko bitartekaritza zerbitzua

Dozena bat sakandar berri, 7 emakumezko eta 5 gizonezko, kulturen arteko zubi lana egiten ari dira

Hezkuntza, osasuna, gizarte zerbitzuak, udalak, aisia... arlo ugariako profesionalak jo izan dute Sakanako Mankomunitatearen Immigrazio Zerbitzura kezkatuta: Afrika ipar-mendebaldetik, Magrebetik, etorritako pertsonen elkar-ulertzeko benetako zailtasunak zituzten. Immigrazio Zerbitzuak Bitartekaritza Zerbitzua jarri zuen martxan. Baina hura mantentzeko beharrezko dirulaguntzak urrituz joan dira. Ez horrela, elkar ulertzearen premia.

Egoera ikusita azaroan eta abenduan jatorri magrebarreko 12 sakandar berri kultur bitartekari izateko trebatu zituen Immigrazio Zerbitzuak. Jasotako trebakuntza-aren ondoren boluntario gisa ari dira kultur bitartekari lanetan, batean eta bestean. Hala, prestakuntza saio horiei esker Bitartekaritza Zerbitzuaren jarraipena bermatuta dago, urte guztirako. Horrek Magrebetik Sakanara etorritako pertsonen elkar ulermena erraz-



Makina bat kultura bizi dira Sakana, bakoitza bere bereizgarriekin.

tuko du. Bateko eta besteko kulturen arteko zubi lana egiten dute boluntarioek eta Bego Zestau Baribar teknikariak esan digunez, "elkarraren arteko elkarbizitza osasuntsuago eta baikorragoa izanen da".

Beharra izanez gero

Bitartekari Zerbitzuaren premia duen pertsonak Mank-eko Immigrazio Zerbitzuarekin harremanetan jarri beharko du (648 070 710 telefonoa edo immigrazio@sakana-mank.com posta). Teknikaria-

ri eskaera zehaztu ondoren, bera jarriko da boluntario taldearekin harremanetan guztia behar bezala lotzeko.

Sakandar berriek bermatu duten Bitartekaritza Zerbitzua Magrebetik etorritako pertsonen elkar ulertzeko erraztasuna edo laguntza behar duten pertsonen, taldeek edo erakundeek eska dezakete. Baita Afrika iparraldetik etorritakoek ere, profesionalekin, erakundeekin edo pertsonen elkar ulertzeko premia baldin badu.

Sakandarrak Iruñean hizkuntza-politika aldaketa aldarrikatzen

Eguraldiari aurre eginez larunbat arratsaldean makina bat sakandarrek parte hartu zuten Nafarroako euskal komunitateak deitutako manifestazioan. Akaberan, euskararen gizarte erakundearen Kontseiluko buru Paul Bilbaok hartu zuen hitza eta adierazi zuen Nafarroan desioden aldaketa ez dela benetakoia izanen "gu guztiok kontuan hartu gaituen hizkuntza-politika bat abiarazten ez bada". Bilbaokesan zenez Nafarroako euskaraz bizitzea aldarria izateko errealitate bihurtzeko denen artean baldintza berriak sortu behar dira. Horretarako Nafarroako euskaltzaleei elkarlanerako deia egin zuten, euskararen normalizazioan urratsak emateko. Kontseiluko buruak nabarmendu zuenez, "pertsonak gara aldaketaren gakoak, eta gutako bakoitzak ekin behar dio gako izateari. Gu gara aldaketa eragingo dugunak, eta ez dugu hutsik egingo". Euskaraz bizitzeko deia egin zuen.



Aurreneko Sakatxartel asteburua

Sakanako euskarazko hedabideak laguntzeko Bierrik fundaziok babesle egin dira 1.570 sakandar eta Beileixeguaixe txartela eskuratu dute. Asteburu honetan txartel hori erabili Sakanako merkataritza laguntzeko eta saria irabazteko aukera ere izanen dute sakandar horiek. Sakatxartel Asteburua baita hau. Beileixeguaixe txartela Sakanako 80 establezimendutan baino gehiagotan erabili daiteke urte guztian, eta erosketetan deskontuak eta abantailak eskuratu. Asteburu honetan, txartelarekin erosketak eginda, Bierrik fundaziok babesle guztiak bisariren zozketan sartu dira: bata, bi lagunendako bazkaria Astizko aterpean eta Mendukilokobazulorako bisarera eta, bestea, Iortiko zinemarako hilabeteko bi abonua Beileixeguaixe txartel bat opari. Erosketa egiterakoan datuak papertxobatean jarri eta kutxobatean sartzearekin nahiko izanendalehiaketan parte hartzeko.

Beileixeguaixe txartela eskuratzeko

948 564 275 eta 948 562 107 edo www.guaixe.net atarian sartu.

TxikiTxiki
haurren arropa eta lentzeria

948 46 73 08
Ferialeku 2 · ALTSASU

HIJOS DE GOIKOETXEA
EDARI BANATZAILEA

Zatoz gure ardotezia ezagutzera!

Geltoki auzoa 11 · Altsasu
948 467 317 · 696 979 279
hijosdegoikoetxea@yahoo.es

PORTUKO okindegia
Ogiaren artisauak

Altsasu: 948 563 822
Etxarri Aranz: 948 460 988
Urdiain: 948 563 763

>> Altsasu

Memoriaren zakua ehuntzen

Gaur, 19:00etan, Iortia kultur gunean Altsasuko memoriaren lehen atala aurkeztuko da

Hainbat gertakari ahanzturaren zuloan galduak ez gelditzeko lanean ari da Altsasu Memoria taldea. Bere egitekoa horrela azaldu dute taldekideek: "Altsasuko historia osatu eta berreraikitze asmoz lanean gabiltza. Historia ofizialaren bazterrean, ezpondetan zokoratuak izan diren protagonista eta gertakari bide eta leku egiteko". Zuzeneko edo zeharkako errepresioak ezkutuan utzi dituen errealitateak bilatu eta azalarazteko zeregina jarri dio bere buruari Altsasu Memoriak.

Pixkanaka jasotzen joan direna aurkeztuko dute gaur jendarean Iortia kultur gunean, Altsasu Memoriaren helburuetako bat baita "gure historia guztiakin partekatzea". Taldeak gaur Altsasuko historiaren aurreko atala aurkeztuko du. Herriaren lehen aipamena egiten duen agiritik 1.950 urtera arteko tartea hartzen du lehen atalak. "Ezinezkoa zai-gunez jasotako guztia xehetasunez



Langile soldaduen batailoietan ibilitakoak ormentzeko oroigarria mustu zen 2008ko maiatza akaberan.

azaltzea, ibilbide horren mugari nagusien aipamena eginen dugu, azalpen zehatzagoak aurreragoko argitalpenetan jasoko dugu", argitu dute taldekideak.

Lehen atalaz

Altsasuko historian barnako ibilbide horretan aparteko aipamena izanen dute: Gaztelak, 1200.

urtean Nafarroako erresumari kendutako lurraldeak, eta erreinuen arteko muga bihurtu zen herriak. Gaztelak Nafarroa 1512an konkistatu izana ere aipatuko da. Baita karlistadak eta 1936ko gerra zibila. Altsasu Memoriatik azaldu dutenez, "gertakari ilunek utzitako zaurien oinazeak, zauri isilduak, askok

bere bakardadean sufrituak... Gure ekarpena egiari zor eta herri aitortza behar duten mikrohistoriak azalaraztea da, herriko historiak iruteko". Taldekideen iritziz memoria kolektiboari eusten diotenak egia eta ezagutza dira. Horregatik, oinarri horiek "berreskuratu, azaleratu, garbitu eta ikusgai jarriko" ditu.

Gaurko aurkezpenean

Argazkiak eta bideoak proiektatuko dira; Bide Ertzean taldea ariko da; antzerkia izanenda, baita elkarrizketak ere. Sarrerak agortuta.

Altsasu Memoriako kideak

Isu Imaz, Ainhoa Corcuera, Mikel Claver, Oihane Zelaia, Aser Imaz, Jokin Unamuno eta Iker Agirre.

Elkarlanerako deia

Herriaren memoria osatzeko langintzan altsasuarren laguntza estimatuko luketela jakinarazi dute taldekideek. Haien iritziz, "etxeetan, bazkalondoetan, lagunartean kontaktzen diren pasarteak, gure herrian benetan gertatutakoaren kontakizun zehatz eta gertukoak" osatzeko baliagarriak dira. Historiaren pasarte horiek bizi izan dituztenei ahotsa, izena eta izana emateko lanera batzeko gonbitea luzatu die Altsasu Memoriak, "denen artean gure iragana, oraina eta etorkizunaren zutarriak".

>> Etxarri Aranatz

Herri galdeketako alde zaurretiko botoa eman daiteke dagoeneko

Interesatuak 2014a13@gmail.com e-postara edo 620 378 338 telefonora jo dezakete

Herri galdeketako ikuskariaren burua bertan zela, herenegun lakratu zuten herri galdeketako aurretiko botoko hautestontzia. Lakratze horrekin A13 ekimeneko kideek hautestontzi hori dagoen unera arte ez dela zabalduko bermatu nahi dute. Berme hori hartuta, A13ko ekimeneko bi boluntario, atzoz geroztik alde zaurretiko botoa jasotzeko prest daude.

Ekimeneko kide Manu Gomez Genuak azaldu digunez, alde zaurretik botoa emateko interesa duten herritarrek haiekin harre-



Araceli Markotegi hautestontzian sinatzen, urraketak salatzen berme gisa.

manetan jarri beharko dute. Ordua eta tokia hitzartu ondoren, ekimeneko kide bat azalduko da

zitarra. Aldean hautestontzia, bozka papera mordoa (bai, ez edo txuri), gutunazalak eta erregistro

liburua dituela.

Prozesua

Interesatuak bere burua identifikatzeko datua (EHNA, NA, gida baimena edo pasaporte) eta sinadura erregistro liburuan jasoko dira (apirilaren 13an guztia bukatu ondoren desegin eginen dira datu guztiak). Bozka-papera mordoa artean nahi duena aukeratu eta gutun-azal batean sartu beharko du eta hori egin ondoren gutun-azal handiago batean sartu eta horixe da hautestontzian sartu beharko dena.

Konsulta sinbolikoa bada ere, ongi egiten denaren bermeguztiak nahi dituzte A13ko ekimenekoek.

Hitzaldia

Bihar 11:30etan Etxarri Aranatzko kultur etxean

A13 ekimenak Nafarroako Parlamentuan ordezkatuak dauden alderdiak erabakitze eskubidearen alde euren iritzia emateragone bidatu ditu. Haietako hiruk baiezkoa eman dute eta hala gaiaren inguruan euren iritzia ematen duten hizlariak izanen dira: Jose Miguel Nuin (IUN-NEB), Alvaro Baraibar (Geroa Bai) eta Bixente Goikoetxea (EH Bildu). UPNtik gonbiteari ezezkoa eman zioten eta PPK eta PSNk ez zuten erantzun.

Gainera, ezin dutenez administrazioaren laguntzarik izan, galdeketan egunean kanpoan daudenak ezin izanen dute parte hartu, posta zerbitzua erabiltzean ez delako zuzeneko parte hartzea bermatzen.

MOTZEAN

Bigarren eskuko azokarako materiala jasotzeko prest

Itxipuru taldeko kideek Irurtzungo Aralar kalean duten egoitzan, ekonomato zaharrean, egonen dira heldu den aste astearrean, asteazkenean eta ostegunean, arratsaldean. Boluntarioak han daudela edozeinek eraman dezake etxean soberan duen eta erabilgarri dagoen edozein gauza. Itxipurukoek jaso eta apirilaren 6an, goizez, bigarren eskuko



azokan salgai jarriko dute. Salmentatik lortutako dirua Senegalen osatuko da.

sun kontsultategi bat egitera bideratuko da. Asteburuan eginen den elkartasun afariko dirua ere helburu bera izanen du.

Azarorako Inasa itxita

Nafarroako Gobernuak Ingurumen Kalitatearen Zerbitzuak instalazioa ixteko proiektu tekniko eta lurzoru aztertze plano eskatu zion Inasa Foil, S.A.ko zuzendaritzari. 2012ko azaroaren 16an zuten. Beharrezko baldintzak ezarrita, lastailaren 31rako despeditua beharko du.

948 460 111 · Arkuetobide kalea · Etxarri Aranatz

SAKANA

Lekunberri,
Nafarroako UGTko
idazkari nagusi

Astelehenean egindako ezohiko batzarrean Nafarroako UGTk Javier Lekunberri aukeratu zuen bere idazkari nagusi izateko. Ordezkarien %82ko babesa lortu zuen. Olaztiko porlandegiko enpresa batzordeko burudunak zuzenduko du heldu den lau urteetan UGT. Momentuz Olaztagutiko ardurari ere helduko dio. Lekunberri aurten 25 urte egingen ditu UGTn afiliatuta. 1998 eta 2002 artean Juan Antonio Cabrero idazkari nagusi zela, Lekunberri Batzorde Exekutiboko kide izan zen, eta Ekintza Sindikaleko eta Enpleguko arduraduna. Azken urteetan Lorenzo Rios buru duen Metala, Eraikuntza eta Antzekoak federazioko batzorde exekutiboan aritu da. Pasa den urtean UGTk bere ohiko batzarra egin zuen eta Juan Goien %47,3ko babesa jaso zuen. Hainbat federazio eta eskualde ez zeuden gustura, tartean Sakanakoa, eta aldaketaren alde egin zuten. Babesak eskuratu eta ezohiko batzarra deitu zuten.



Javier Lekunberri.

Altsasu

Atabo-Altsasuko
langileek bi urteko
lan hitzarmena
sinatu dute

Lan erreformaren aurrean lan baldintzak "blindatu" dituztela adierazi dute ELAtik

Sindikatuaren iritziz afiliazioa eta antolakuntza ezinbestekoak izan dira akordioa lortzeko, baita udalaren borondatea ere

Aurtengo eta heldu den urterako lan hitzarmena sinatu dute Altsasuko kiroldegia kudeatzen duten enpresa publikoko langileek. Atabo-Altsasu SL enpresak 15 langile ditu eta ELAK du ordezkaritza. Sindikatutik jakinarazi dutenez, "langileen eros ahalmena bermatu eta lan erreformaren efektuak neutralizatu dira akordioarekin".

ELAKo ordezkariek jakinarazi dutenez, mugagabeko ultrajardura bermatu da, aldebakarrekotasunez ezin izanen du hitzartutakoa betetzeaz utzi, ez da malgutasunik izanen eta enpresa publikoaren bidezko kudeaketa bermatzen da. Zerbitzua pribatizatuko balitz langileak beste enpresabatera pasatuko liriteke. ELAtik azaldu dutenez, langileek KPI erreala gehi %1eko soldata igoera izanen dute. Gainera, oinarritzko soldataren gainean %10eko plusa jasoko dute 10 urteko antzinasuna dutenek. Lanaldia zortzi ordutan murriztu dute ere.

Irurtzun

Irurtzundarrak aurrekontuak
definitzera deituak

Bihartik apirilaren 6ra arte aurten egiteko lau proiektuaren artean aukeratu daiteke

Laugarren urtez segidan irurtzundarrek udaleko aurrekontuan erabakitzeak aukera izanen dute. Herritarrek udalaren aurrekontuaren %2, 35.000 euro, zertara bideratu zehaztu beharko dute. Lau proiektuaren artean aukeratu beharko dute. Baina lau aukera horietara iritsi baino lehen talde sustatzailea azarotik Irurtzongo talde eta kolektiboetako ordezkariekin elkartu da, 288 pertsona. Jaso dituzten proposamenen eta iradokizunen artean hautaketa

egin dute eta irurtzundarrek proposatutako lauen artean erabaki beharko dute. Babes gehien jasotzen duen proiektua udalari aurkeztuko zaio aurtengo aurrekontuetan gehitu dezan.

Ekarpenak

Herrian barna jarritako hainbat kutxetan botoak sartuz edo preparirurtzun@gmail.com e-posta bidez ere egin daiteke. Aurrekontu parte-hartzaileak sustatzen dituen taldeak irurtzundarrak heldu den urterako proposamenak gehitzera animatu ditu, 2015erako baliagarriak izanen direlako.



Haur eta gurasoendako txoko bat sortzea da proiektuetako bat.

Lau proiektuak

Atakondoa eskolako aldagelak Iturgintza berritzea, ur beroaren bideratze berria eta egungo ur hotzaren sarea aldatzea; 16 dutxa eta 4 komunetako sarrera ateak aldatzea; konketa eta ur pikak dauden tokia hobetzea eta margo erremateak, bukaerak, ispiluak eta argi aparailuak.

Umeekin egoteko instalazioak Neguan gurasoek eta haien umeek egon beharrean lokal bat egokitzea litzateke proiektua. Aukeren artean Gaztetxokoaren ondoko lokala dago. Astegun arratsaldeetan erabili litzateke. Eguneroko kudeaketa udalari eskatzen dioten guraso taldearen ardura litzateke, urtez urteko zesoaren bidez eta berritzeak aukerarekin

behin garai hori bukatuta. Kudeaketa eta funtzionamendua landu eta hitzartu beharko litzateke.

Karpa

Herriko taldeek, kolektiboek eta irurtzundarrek erabili luke ten karpa bat erosteko proiektua da. Onartuko balitz, karpaa erosi aurretik, baldintzak, ezaugarriak, kokalekua, kudeaketa eta funtzionamendua landu eta hitzartu litzateke

teke gaiaz interesa edo gogoia daukaten pertsona eta kolektiboekin.

Gimnasioa

Gimnasio gisa erabiltzeko lokal bat egokitzea. Egingen liratekeen lanak: igeltseroarena, zurginarena, beirak, zoruak, pintura, klimatizazioa, ... Kiroldegiko bi gelatxo, areto bakar bihurtuko lirateke. Ekipatu gabeko lokal bat egokitu litzateke, etorkizunean gimnasio bihurtzeko.

Aizkorbe / Irurtzun

Plazaolako lanei
oniritzia eman die
gobernuak

Gauzak ongi lanak udazkenerako despidituko dituzte eta bide berdeak Andoain eta Irurtzongo muga lotuko du

Plazaolako trenbide zaharraren Mugiroko tartea bide berde gisa berreskuratzeko lanen proiektuari baietza eman dio Nafarroako Gobernuaren Inguurumen Kalitatearen Zerbitzuko zuzendariak, Pedro Zuazo Onagoitiak. Plazaola Partzuergo Turistikoko akustatutako lan hori egiteko ingurumen arloko hainbat baldintza jarri dizkio.



Bakaiku

Apirilaren 4ra arte aurkeztu daitezke inkestak

Bakaikuko Udalak herriaren 2025 urte bitarteko beharrei aurre egiteko plana osatu nahi du bakaikuarren laguntzarekin. Horregatik dinamika parte-hartzailea abiartu du. Lehen urratsa etxetara inkesta bat banatzea izan zen. Bakaikuarrek hainbat gairen inguruan iritzia eman eta ekarpenak egiteko aukera ematen du inkestak. Haiek aurkezteko epea apirilaren 4ra arte luzatzea erabaki du udalak. Inkestak udaletxeko bulegoan edo postontzian utzi ditzakete bakaikuarrek. Bitartean udala jubilatuko eta Bakarrekotxearen elkarteko ordezkariekin elkartuko da, beste eragile batzuekin egin duen moduan.



Ospakizunak nolakoak beharko luketen ere jasotzen da inkestan.

Aste Santu aurretik batzarra deitu nahi du udalak, inkesten emaitzak erakutsi eta ondorioak ateratzeko. Haien arabera lantaldeak sortuko dira, proposamenak eztabaidatu eta eman ditzaten.

Lantaldeek proposamen zehatzak adostu ondoren herritarrei aurkeztuko zaizkie, proposamenak aukeratu eta lehentasunak marka ditzaten. Azken erabakiak batzarrean hartuko dituzte bakaikuarrek.

PPSOE,
ETB
digitala
Nafarroan
orain!

Berria erosi taldea

JUANLUZENA
SAGARDOTEGIA
urtariletik maiatzera
tel. 948 604 571
680 652 183

ODERITZ

NEREA
ILEAPAINDEGIA

NEREA BAKAIKOA.
Ermiñeta Kalea 4. ZBK. (Atzekaldeak)
LAKUNTZA. TFN:948 576 331

BILTOKI
TABERNA • JATETXEA

Pintxoak
Bokatak
Plater konbinatuak
Karta

Asteleheneetik ostiralera
Eguneko menua
8,25€

Asteburuetan
Menu berezia 25€

948 467 876 • Altsasu

>> Altsasu



EHEkoen mahaian udalarekin euskarazko harremana izan nahi duela sinatzen.

Udalaren esku daude harekin euskarazko harremana izan nahi dutenen eskaerak

Etxean eta kalean zein udalean jasoko dituzten paper, ohar, bando, inprimaki, publizitate euskarri, lanpostu deialdi eta bestelako

guztiak euskaraz izatea eskatu dute. Baita 012 telefonoko informazioa euskaraz izatea ere.

Udalak eta biok euskaraz dina-

Autobusa

EHEk apirilaren 6rako Gasteizen antolatutako Euskaraz Bizi Eguna joateko Sakanatik autobusa antolatutako da eta 2:30ean abiatuko da eta 2:30ean itzuli. Izena ohiko tokietan eman daiteke apirilaren 1era arte.

mikaren barruan, Euskal Herrian Euskaraz (EHE) eragile euskaltzaleak 50 altsasuar baino gehiagoren eskaerak erregistratu ditu udaletxean. EHEko kideek eskaera horien jarraipena egiteko konpromisoa hartu dute. Ostiralean Gure Etxea eraikinean 30 pertsonak sinatu zituzten eskaera-orriak eta gainontzekoak Iortia kultur gunean eta gaztetxean jarritako kutxetan jaso zituzten.

Etxarrin bihar

Udalak eta biok euskaraz dinamizaren barruan, Etxarriko Euskal Herrian Euskaraz-ko (EHE) kideak bihar, 18:00etatik aurrera, plazan izanen dira. Ordu batez herriko eragileekin ariko dira, udalarekin dituzten harremanak euskaraz izateko bermatzeko eskaera-orriaren nondik norakoak azaltzeko. 19:00etatik aurrera edozein etxarriarrek ere sinatu ahalko du EHEren eskaera-orria. Haiek arduratuko dira gero udaletxean aurkezteaz eta jarraipena egiteaz. Udala herritarrengandik gertuen dagoen administrazioa izanda neurri batean euskararen aldeko hizkuntza politika egiteko aukera duela eta horixe bermatzeko eskaera pertsonal sinatzeko deia egin dute EHEtik.

SAKANA

Ikasle greba hezkuntzako neurrien kontra

Hezkuntza eredu "propioen" alde egin dute ikasle abertzaleek

Espainiako Gobernuak sustatu duen hezkuntza erreformaren kontra protesta egiteko greba egin zuten atzo hezkuntzan, Ikasle Abertzaleak erakundeak deituta. LOMCE Legearen eta bestelako neurrien bidez "inposatu" nahi dizkieten neurriak etete eskatu zuten ikasleek. Esaterako: unibertsitateko tasen igotzea, hezkuntza publikoko murrizketak, beken murrizketak edota euskaraz ikasteko trabak. Deialdiak irakaskuntza arloko makina batsindikatu eta eragileren babesa jaso zuten.



Goizean Altsasun 200 bat gaztek manifestazioa egin zuten, zapalkuntzaren aurrean ikasleak borroka pankartaren atzean. Guardia Civilak gertutik zaindu zuen manifestazioa. Altzania kalean bi agente manifestazio buruan jarri eta ikasleren bat identifikatzen saiatu ziren, baina ikasleek aurrera egin zuten. San Juan eta Zelai kaleen bidegurutzean 10 Guardia Civilek bidea itxi eta pankarta kendu zieten ikasleei. Bakarren bat identifikatzen saiatu ziren baina ez zuten lortu, batek hanka egin zuelako eta baztertuta zuten gazte baten ondoan jarri zirelako gainontzekoak, herri harresi modukoa sortuz. Hizketa baten ondoren ikasleek mobilizazioa espaloitik joanez bukatu zuten Foru plazan. Autobusez Iruñeko manifestaziora joan ziren. Altsasun, arratsalderako deialdi bat egin zegoen.

SAKANA

Goi tentsioko lineari 247 ezezeko



Argindar linearen kontra aurretik ere protesta egin dute

igandean Ezkio-Itsaso artean aurreikusitako lineako 247 dorreen kokalekuan protesta egingen dute lurkideek. Irurtzunen elkartuko dira ondoren

Lurkide eguna ospatuko du etzi Autopista Elektrikorik Ez! plata-

formak. 247 taupada lurrarekin bat leloa du igandeko protestaldia. Deikaztelu-Itsaso argindar linearen proiektuan aurreikusitako 247 dorreak hartuko dituzten eremuak babesteko konpro-

270 baino gehiago

Kultura, kirol, ehiztari edo ekologista taldek hartu dute Lurkide konpromisoa.

misoa hartu dute 247 erakundetako ordezkariak. Lurkide konpromisoa hartu dutenek "babestu" duten eremu hori goi tentsiorik gabeko eremu librea dela adierazi dute, eta etzi lekuan bertan berretsiko dute. Horretarako, plataformaren banderola jarriko dute eta argazkia aterako dute dorre zenbakiarekin eta lurkide bakoitzaren izenarekin batera.

Egitaraua

Irurtzun

>> **Martxoak 30, igandea**
11:00etan Bakoitza bere dorrearen kokalekura joan eta argazkia atera.
12:00etan Irurtzuno plazan harrera gaitariekin eta trikitilariekin.
12:30ean Ekitaldi nagusia, giza-puzlea egingen da.
13:00etatik aurrera Kale-animazioa, txosna, pintxoa, musika...
15:00etan Herri-bazkaria. Goizeko argazki emanaldia.
17:00etan Musika eta txosna iluntzera arte.

Iturmendi

>> **Martxoak 29, larunbata**
10:00etan Mendi irteera poste elektrikoak jarri nahi dituzten lekuetara.
14:00etan Herri bazkaria Aitzkozar elkartean.
Ondoren, Autopista Elektrikorik Ez! Plataformaren dokumentalaren emanaldia.

MOTZEAN

Deialdi berria Zelandiko fisioterapia eta masaje zerbitzua emateko

Interesatuak apirilaren 7ra arteko epea dute kiroldegiko harreraren eskaera aurkezteko

Altsasuko Udaleko enpresa publikoak, Atabo Altsasu SL, kiroldegian

fisioterapia eta masaje zerbitzua jartzeko eskaintza egin zuen. Aurkeztu ziren eskaerak ez zituzten baldintzak betetzen eta zerbitzua eman gabe utzi zuten. Udalen presako arduradunek deialdi berria egitea erabaki dute. Deialdiko berrikuntza da interesatuak ez zaiela eskarmenturik eskatzen. Fisioterapeuta titulua duten pertsona guztiak aurkeztu daitezke deialdi horretara. Eskaintzak jaso eta puntu gehien jaso dituenari emanen dio udalak zerbitzua. Fisioterapia eta masaje zerbitzua emateko Zelandi kiroldegian gela bat egokitzea aurreikusi du Atabo Altsasu enpresak. Zerbitzua kiroldegiko bazkideek eta bazkide ez direnek erabiltzeko aukera izanen dute. Azken horiek garestiago ordainduko dute. Maiatzean aurreikusi da zerbitzua martxan jartzea eta orduan jakinaraziko dituzte egunak eta ordutegiak.

ri emanen dio udalak zerbitzua. Fisioterapia eta masaje zerbitzua emateko Zelandi kiroldegian gela bat egokitzea aurreikusi du Atabo Altsasu enpresak. Zerbitzua kiroldegiko bazkideek eta bazkide ez direnek erabiltzeko aukera izanen dute. Azken horiek garestiago ordainduko dute. Maiatzean aurreikusi da zerbitzua martxan jartzea eta orduan jakinaraziko dituzte egunak eta ordutegiak.

Autotik erreskatatuak

Herenegun Arakil ibaiak gainezka egin zuelako Uharte Arakilen moztu egin zuten Irañetarako errepedea

Irañeta eta Uharte Arakil lotzen dituen errepedeko zubi ondoko pista batetik zihoazen auto bateko bi gizonak (71 eta 38 urte) erreskatatu behar izan zituzten atzo. 16:02an izan zen. Ubeldeak gainezka egin

zuen eta urpean zegoen pista batek autoarekin pasatzen saiatu ziren. Ibilgailua ez atzera ez aurrera gelditu zen eta bitartean ur maila azkar igoen ari zen. Bi gizonak autotik atera ahal izan zuten eta tokian bertan artatu zituzten. Hipotermia zantzu arinak zituzten. Traktor baten laguntzaz irintarrek autoa atera ahal izan dute. Ezbeharraren tokira Foruzaingoa eta suhiltzaileak gerturatu ziren.

Ostiralero **SAIOA** 9:30etik 10:30era
Errepikapenak 14:00etan eta 19:00etan.

107.3 FM
beleixe online
www.guaixe.net

Piztu irratia!

ASTEBURUKO AGENDA

ASTEKO ERREPASOA:

albisteak, kirolak,
Etxarriko herri galdeketa, Ainhoa Juaniz,
Arbizuko duatloia,
Futsal Sakana txapelketa...

Esataria: *Maiden*

» Etxarri Aranatz



Etxarriarrak liburutegi atarian.

Ikasleei eskolaz kanpoko lanetan laguntzeko boluntarioak behar dira

Mank-eko Immigrazio Zerbitzuak boluntario poltsa bat sortu nahi du Etxarrin. Haien egitekoa Lehen Hezkuntzakoneska-mutileieskolaz kanpoko etxeko lanetan laguntzea da. Hurrekin euskaraz aritu beharko lukete etxeko lanak egiten. Eta haiek bukatzean eskulanak eta jolasak egin beharko lituzkete. Ikasle txikiekin asteartetan eta ostegunetan aritu beharko liriateke, 17:00etatik 18:00etara, egoitza publiko batean. Haurrak euskaraz ongi

pasatzea ere badu helburu jardunak. Azaroaz geroztik martxan da esperientzia, baina Immigrazio Zerbitzuak boluntarioen poltsa handitu nahi du. Ikasturte honetarako edo hurrengorako eman daiteke izena. Informazio gehiago nahi duenak edo boluntario gisa izena eman nahi duenak Bego Zestau Baraibar immigrazio teknikariarekin harremanetan jarri behar du: 648 070 710 telefonoa edo immigrazio@sakana-mank.com e-posta.

» Altsasu

Itsasontziak egiteko baso kudeaketa ezagutu dute Ziburuko ikasleek

Ziburuko Ikastolako ikasleak izan dira interpretazio ibilbide batean parte hartu duten lehenak

Herenegun Ziburuko Larzabal kolegiotik etorritako 15 urteko 61 ikasle Usolarrainen izan ziren. San Juan baleontziaren zura nondik sortu zen jakitera etorri ziren. Aurreneko astetan Sakana osatzen duten herrien izenak eta kokapena ikasten aritu ziren. Altsasun ordu bat eman ondoren Ezkio-Itsasoko Igartubeiti Baserri-Museoa bisitatu zuten. Baleontziaren lana aurreratuak daudenean, Albaolak Pasaian duen Ondartxo ola bisitatu dute.

Lapurdikoko ikastolan San Juan baleontzia ardatz hartuta hainbat gailantzeko proiektua garatzen ari dira, gizarte zientzietan batez ere, esaterako: baso kudeaketa, immigrazioa eta beste. Albaola elkarte-ko Mikel Leoz Aizpuruk itsasontziak egiteko baso kudeaketa nola egiten zen azaldu zien lapurtarrei.



Ziburuarrek adi segitu zituzte Albaolako Leozen azalpenak.

Sakanako garapen agente Iker Manterolak jakinarazi digunez, tarteka halako bisitak egingen dira, "baina ez nahieran". Ikastetxeak bisita aukeraren berri badutela ere azaldu digu Manterolak.

Proiektua

Aurreikuspenak betez gero, udazkenerako prest izanen da Altsasun egin nahi den ontzigintzarako basoen kudeaketarako interpreta-

zio bidea. Dantzalekura iritsi aurretik dagoen aldapan, ezkerretako bide batetik abiatuko lituzateke, Usolarrainen bukatzeko.

Altsasuko ibilbidea, Etxarrin egingen den Enneco, haritzaren memoria parkea eta Irañetako angioa, hirurak Nafarroan hariztiak nabarmentzeko proiektu batean sartuko direla jakinarazi digu Manterolak. "Turismoari begira-ko lanketa izanen da" gaineratu du.

Eskelak



Mikaela Razkin Galarza

Lonbren amiñak ia ehun urtez zenbat komeri biziko! Dendan, etxean eta familian genuen oso begiko. Joan da negua,

joan da amiña udaberria iritsiko, zuk ere indako haziak ere loratuko dira tinko. Ta Mikaela bihotz-bihotzez gugan zauzkagu betiko.

Zure ilobak



Mikaela Razkin Galarza

Egun hauetan ondoan izan ditugun guztiei eskerrak.

Zuu fameliya



Karmele Garmendia Kortajarena

Sinisten dut hartuko nauen lur hortatik landare berriak sortuko direla: landaretatik zuhaitzak

zuhaitzetatik loreak loreetatik fruituak fruituetatik gizonak eta abereak bazkatuko direla.

Lugorri



Carmen Fdez de Garaialde y Lazkano Mazkian
(2014-03-19)

Benito Bengoetxea Goikoetxea
(1961-12-11)

Azkenean elkarrekin.

Zuen familia



Karmele Garmendia Kortajarena

Eta horrela ibiltzen gera sortuz ta sortuz gure aukera, lana eginez goaz aurrera atsedetik hartu gabe...

Baldarrak

Eskertzak eta eskelak osteguneko goizeko 11:00 arte jasotzen ditugu



Bidali mezua
zorion@guaixe.net-era edo hots egin
948 564 275 telefonora



Karmele Garmendia Kortajarena
(Gure lankide Ikerren ama)

Une latz hauetan bat egiten dugu familiaren saminarekin.

bierrik
fundazioa
Bierrik Fundazioko langileak



GRUPO TANATORIO
IRACHE
TANATORIO TALDEA


948 564 355
679 160 116
(24 ORDUZ)

TANATORIOAK: ALTSASU-IRURTZUN-LEKUNBERRI-BETELU-LEITZA

www.tanatoriosirache.com



Karmele Garmendia Kortajarena



Martxoak 21, udaberri.
Martxoak 22, negu...
Hil zara ama.
Elurrak, geldirik, otzan,
utzi du dana.
Negarra mara-mara
triste gaude laztana.

Baina erakutsi diguzu
zer den maitasuna,
zer den bizia
eta badator berriz ere
egunsentia, udaberria.
Eta hortxe, gurekin betiko,
dago eta egongo da
pozez, zure irria.

Etxekoak



Karmele Garmendia Kortajarena

Eman zaidazu bihotza eta
ken berriz nahigabeak
esan noiz garen izanen
gure etorkizunen jabeak.

Zure lehengusuak



Hainbat aukera

Galdetu

948 564 275

Karmele Garmendia Kortajarena

(Iñigo Aritza ikastolako irakaslea)

Urak dakarrena
Urak daroa

Zuk emandakoa
Gurekin gelditzen da.



Iñigo Aritza ikastolako guraso, ikasle eta langileak



Karmele Garmendia Kortajarena

Eguzki eder joan guztian
argia baitu bihotzak.



Sakana

Karmele Garmendia Kortajarena


(Iñigo Aritza ikastolako irakaslea)

Ez nau izutzen negu hurbilak
uda beteko beroan
dakidalako irauten duela

orainak ere geroan.
Beti gure artean,
KARMELE.



Ikastolako lankideak



Karmele



Ttando, Txirritx eta Xangorekin
batera bidelagun izan zaitugu.

Mila esker bihotzetik
hain irakasle
kuttuna izateagatik.

Lexuri, Magali eta Eneida



Karmele Garmendia Kortajarena

(Andra Mari ikastolako langile ohia)

“Amets bat baldin bada
Betiko bizia
Amets ederrena da,
Amets da guztia”

**Andra Mari Ikastolako guraso,
langile eta ikasleak**



guaixe.iragarkilaburrak.com

NORBANAKOEN IRAGARKIAK

guaixe.iragarkilaburrak.com-en **doan**.
Guaixe astekarian: Saldu/erosi, erretan eman/
hartu, lan eskaintzak 11 euro + BEZ / 3 aste

HARREMANETARAKO

Telefonoa: 948-56 42 75
Posta elektronikoa: zorion@guaixe.net

Ikastaroak

Menpekotasun-egoeran dauden pertsonak.
Tokiz aldatze, mobilizazioak eta lekualdaketak.
Etorriko zaren adierazi, mesedez. Izen-ematea
dohainik, deien hurrenkeraren arabera. Tokia:
Josefina Arregui klinika. Apirilaren 9an, arratsal-
deko 17:30ean, 25 toki. Hots egin 948 56 38 50
telefonora goizez, Benar. Irakasleak: Eneka
Lizarraga eta Itziar Iturrioz.

Cederna. Nire zaletasuna nire lanpostu bihurtu,
Altsasun, maiatzak 8-15-22 eta 29, ekainak 5;
Zuzenean saltzeko estrategiak, Arbizon, urria/laza-
roa zehaztu gabe. Argibide gehiago: Oskia Lazkoz
sakana.admon@cederna.es - 948 56 70 10.

JAIOTZAK

- Peru Mauduit Senar, martxoaren 10ean Etxarri Aranatzan.
- Ametz Arregi Mendizabal, martxoaren 15ean Ziordian.
- Morgan Martin Ledesma Alvarez, martxoaren 15ean Altsasun.

- Jare Urritza Irizar, martxoaren 18an Bakaikun.

EZKONTZAK

- Jon Garziandia Lasa eta Aintzane Garziandia Madrigal, martxoaren 22an Etxarri Aranatzan.

HERIOTZAK

- Maria Angeles Perkaz Beraza, martxoaren 19an Altsasun.
- Maria del Carmen Fernandez Mazkiaran, martxoaren 19an Altsasun.
- Karmele Garmendia Kortajarena,

- martxoaren 22an Lakuntzan.
- Mikaela Razkin Galartza, martxoaren 23an Arbizon.

Informazio hau epaitegietan eta udaletan jasotzen da

MENDIA-ESKIA

RUTH AGUADOK IRANGO MENDIAK EKARRIKO DITU ALTSASURA: Altsasuko Mendigoizaleak eta Dantzaleku Sakana Klubek

antolatuta, Ruth Aguadok "Esquiando en los montes de Irán" proiektzioa eskainiko du bihar, larunbatean, 19:00etan, Iortian.

Duatloia

Egungo duatleta onenak hurbilduko dira Arbizura

Arbizuko 18. Duatloia jokatu da bihar, 16:00etan. Goizean, 10:45ean, Arbizuko II. Haur Duatloia antolatuko dute.

Arbizuko Udalak Arbizuko 18. Duatloia antolatu du biharko. Udalak Sakanako Triatloi Taldearen, Sakanako Mankomunitatearen, Nafarroako Triatloi Federazioaren eta hainbat talde, enpresa eta komertzioaren laguntza izan du. Proba Nafarroako Duatloi Txapelketarako eta Euskal Herriko zirkuiturako baliagarria da. "Proba antolatze-ko 34 babesleren laguntza izan dugu eta eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu" adierazi zuen Arbizuko kirol zinegotzi Juantxu Zabalak.

Arbizu, euskara, kirola eta birziklapena bulkatu

Duatloiarekin 4 helburu lortu nahi dituzte. Batetik, Arbizu ezagutaraztea. Bestetik, euskara bulkatzea. Probaren epailea euskalduna izanen da. Kirola eta jendearen parte hartzea bulkatzea da hurrena. Eta zaborrik ez sortzea da azkena. "Sortutako materiala, dortsalak eta beste, birziklagarriak izango dira" azaldu zuen Zabalak.

Ohiko ibilbidea eta no drafting

Proba nagusiko ibilbidea betikoa izango da, duatletek oso gustukoa dutelako. "Ibilbide gogorra da. Lizarragako Katea igo behar da bitan, eta haizeak jotzen badu oso gogorra izaten da" adierazi digu Arbizuko kirol zinegotziak. Boxak Kale Nagusian egonen dira, ikusleek



Amaia Gerrikagoitia teknikaria, Aralar taldeko Iñigo Razkin, Juantxu Zabala kirol zinegotzia eta Miren Mendinueta alkatea.

trantsizioak gertutik ikus ditzaten.

Txirrindula proban duatletek ezingo dute aurreko edo ondoko-aren gupilari lotuta joan. Hau da, ezin da draftinga egin edo beste-ek egindako lanaz aprobetxatu.

8 km-32 km-4 km

16:00etan abiatuko da Arbizuko 18. Duatloia. Irteera plaza parean izanen da. Herrian barna prestatutako 4 kilometroko zirkuituari bi buelta eman ondoren, bizikleta hartu eta 32 kilometro egingen dituzte, Lizarragako Katea bitan igoz. Bukatzeko, herriko zirkuituari buelta bat emanen diote korrikan.

Kadeteek helduen proban parte hartuko dute, baina ibilbide erdia egingen dute: 4 km-16 km-2 km. Txirrindulako tartean kadeteek Bibei auto elektriko bat izanen dute aurretik eta beste bat atzetik.

Egungo duatleta onenak

Dagoeneko 160 duatletek eman dute izena proba nagusian eta 122k hurren proban. Izena eman dutenen artean puntako duatletak daude: emakumezkoen artean Ana Casares, Maider Razkin, Veronica Anselmo, Leire Etxezarreta, Lourdes Oiartzabal, Maider Gaztañaga... eta gizonezkoetan Raul Amatriain, aurreko urteko irabazle Raul Roda, Unai Yus, Iker Rozas, Ander Agirre... Sakana Triatloi Taldekoek ez dute huts egingo.

Proba bukatuta sari banaketa egingen da Arbizuko plazan, eta ondoren, auzatea izanen da Aldabide elkartean, Antolakuntza lanean 80 pertsona inguru ariko dira.

Sari arbizuarrak

Lehenengo gizonak eta emakumeak 150 euro, txapela eta Anastasio

harategiko lotea jasoko dituzte, bigarrenak 100 euro eta hirugarrenak 50 euro. Horretaz gain, 23 urtez azpiko, junior mailako eta beterrano mailako lehen gizonak eta emakumeak Arbizuko produktuen loteak jasoko dituzte Arbizu, Laket eta Florensen eskutik. Lehen sakandarrei Kemen Osasun Zerbitzuak egindako esfortzu proba oparitu zaien. Sakanako bigarrenak eta hirugarrenak bi pertsonendako afaria jasoko dute, Beldarrain Jubilatuetan eta Baxerri jatetxean. Eta lehen arbizuarrak bi pertsonendako bazkaria edo afaria jasoko du opari, Olatzea Hotelean.

Horretaz gain parte hartzaile guztiek Juananeko gazta puska bat jasoko dute. Eta partaide guztien artean asteburu bateko egonaldia zozketatuko da Arbizuko Eko kanpino bungalow batean eta Bibei Auto Elektrikoekin bisita gidatua.

Nobedadea: haurren proba

Nobedade moduan goizean haurrendako proba antolatuko dute. "Duela hainbat urte haurren proba antolatu zen eta horregatik Arbizuko II. Haur Duatloia izendatu dugu, baina orduko proba ez zen Nafar Kirol Jokotarako baliagarria eta aurten goa bai" zehaztu dute. Aurrebenjaminak, benjaminak, kimuak eta haurrak lehiatuko dira, 5-14 urte bitarteko neska-mutikoak, 10:45ean hasita, Arbizuko herri gunean prestatutako zirkuituan. "Dagoeneko 120 hurrek baino gehiago eman dute izena, horietatik 34 Sakana Triatloi Taldekoak dira eta asko arbizuarrak.

Informazioa

www.arbizu.info eta www.navarratriatlon.com.

Herrira Etxarritik eta Lakuntzatik sartzeko deia

Segurtasuna bermatzea da antolatzaileen kezkarik handiena. "Ostiral arratsaldean boxak prestatzen hasiko gara eta kale Nagusian zingoda aparkatu. Etalari batean goizetik herri gunea itxi egingo dugu. Hortaz, proba jarraitzerago datozenak ez daitezela autobiko Arbizuko irteeratik etorri, bidea itxita izango dutelako. Sar daitezela Etxarritik edo Lakuntzatik. Kiroldegian eta trenbideko bidean aparkalekuak prestatu ditugu" azaldu zuen Zabalak. Bidegurutze guztietan egongo diren bolondresei "kasuegiteko" nabarmendu zuen Zabalak.

Altsasukoa, eguraldiak baldintzatua

LARUNBATEAN V. RAZESA DUATLOI SARI NAGUSIA JOKATU ZEN. IGOR FLORES IZAN ZEN LEHEN SAKANDARRA

Sakandarrak V. Razesa Duatloi Sari Nagusian:

1.	Beñat Arnaiz	1:05:40
16.	Igor Flores	1:08:57
21.	Urko Berdud	1:09:27
31.	Juan Luis Maiza	1:10:58
33.	Mikel Astiz	1:11:09
36.	Fidel Jimenez	1:11:26
45.	Aritz Munarriz	1:13:16
52.	Fernando Igoa	1:14:57
65.	Emilio Guirado	1:16:15
67.	Mikel Satrustegi	1:16:28
78.	Juan Carlos Gomez	1:18:04
89.	Juantxo Azurmendi	1:20:05
103.	Borja Gonzalez	1:23:01
104.	Iñigo Maiza	1:23:02
109.	Carlos Manero	1:23:48
149.	Carlos Goikoetxea	1:36:25

*Oharra: Saillapenean duatleten jaioterriko daturik agertzen ez denez, gerta daiteke sakandarren bat ahaztu izana.

185 duatletek parte hartu zuten V. Altsasuko Duatloia-Razesa Sari Nagusian. Goizean Nafarroako Kirol Jokotarako baliagarria zen proba jokatu zuten kategorian txi-



Igor Flores helmugara heltzen.

kiko 135 duatletek.

Euriak eta hotzak markatu zuten Nafarroako eta Euskal Herriko Zirkuituetarako baliagarria zen arratsaldeko proba. 5 km korrikan, 22 km bizikletan, Altamira igoz, eta 2,5 km korrikan osatu behar izan zituzten. Beñat Arnaiz (1:05:40) arratsatearra izan zen irabazlea. Raul Amatriain aurreko urteetako irabazlearen falta aprobetxatu zuen Arnaizek. 13 segundo atera zizkion Imanol Larrañagari (1:05:53). Maria Mendive (1:18:29) donostiarrak irabazi zuen emakumezkoen artean. Lehenengo sakandarra Igor Flores (1:08:57) izan zen.

"Osogorria izanda. Altamiran elurra egiten zuen", adierazi zuen probako irabazleak. Hiru urtez

Olatz Azazeta txapeldun



Olatz Azazeta duatleta altsasuarra A Coruñan izan da asteburuan. Noian Espainiako taldekako eta erreleboen erlojupeko Duatloi Txapelketa jokatu da. Olatz Azazetak Triatloin Saltoki-Trikideak taldearekin hartu zuen parte, kadeteen mailako proban. Eta Nafarroako taldea izan zen txapelduna, kadeteetan. Zorionak Olatz!

Altsasun bigarrena izan ondoren, larunbatean lehena izan zen Arnaiz. Proba azken eremuan erabaki zela azaldu zuen: "boxetara aurretik iritsi naiz eta helmugaraino erritmoan mantendu naiz". Maria Mendive, aldiz, txirrindulan aurreratu zen eta hor ateratu zuen garaipena lortzeko tartea.

Sakandarrak ongi

Altsasun dozena bat pasa sakandar lehiatu ziren. Euren artean azkarrena Igor Flores izan zen. Txirrindulari ohia 16.a izan zen helmugan (1:08:57), eta beterranoen lehen kategorian bigarrena. Iñigo Maiza etxarriarra bigarrena izan zen kadete mailan.

Mendi txirrindularitza

Mikel Otxoa 14.a Cascanten

Diego Tamayok irabazi zuen Cascanteko Virgen del Romero Trofeoa

Barri Sport taldeko Diego Tamayo kolonbiarrak (1:39:15) irabazi zuen Cascanteko Virgen del Romero Trofeoa, Rural Kutxa BTT Koparako baliagarria zen lasterketa. Tamayok 23 segundo atera zizkion MSC Powerbike taldeko Patxi Ciari eta 4:12ko aldea Conor Saltoki Berriainz taldeko Diego Latasari. Izurdiagako Mikel Otxoa 14.a sailkatu zen, 9:51ra, eta 4.a izan zen 23 urtez azpiko sailkapenean.

Mendi lasterketak

Jose Javier Maiza ongi Donostia-Hondarribi lasterketan

Etxarriarra 36.a sailkatu zen

533 korrikalarik osatu zuten IV. Donostia-Hondarribi Talaia Bidea mendi lasterketa (30,8 km). Jokin Lizeaga izan zen azkarrena (2:11:29). Jose Javier Maiza etxarriarrak lan ederra egin zuen eta 36.a sailkatu zen (2:39:25).

Atletismoa

Sakandarrak Etxauri gainean

Mikel Beunzak (28:18) eta Alejandra Arribasek (36:59) irabazi zuten igandean 35. Etxauriko Igoera. Proba Etxauritik abiatu eta Larreaundi gainean despeditu zen. Probak 7 km ditu, baina tarte horretan 433 m-ko desnibelari egin behar izan zioten aurrekorrikalariak. Beteranoen sailkapenean Jose Javier Ducay 8.a izan zen (32:31) eta Ion Zubiria 57.a. 74 urte dituen Jose Maria Mercero unanurrak ere proba osatu zuen. Senior kategorian Gorka Santesteban 8.a sailkatu zen (32:37) eta Gurutz Zubiria 33.a (43:14).

Pilota

Arrieta-Peñas, txapeldunordeak

Espainiako Kluben Arteko Txapelketako eskuz binakako finalean Uharte Iruñeko Yoldi eta Linzoain nagusitu zitzaizkien altsasuarrei

Asteburuan Espainiako Kluben Arteko Txapelketako finalak jokatu dira Zaragozan. Ohorezko mailako eskuzko binakako final handian Uharte Iruñeko Yoldi eta Linzoainek Altsasuko Arrieta eta Peñas irabazi zituzten, 10-3 eta 10-7.

Irurtzun finalerdietarako sailkatu zen baina ez zen finaletar heldu. Eskuz banakakoan, Najerinoko Larrea gailendu zitzaion Irurtzongo Armendarizi (4-10, 10-2 eta 4-5), eta eskuz binakakoan Uharte Iruñeko Yoldi eta Linzoainek lortu zuten finaletar iriste, Irurtzongo Ongay eta Mitxelena bidean utzi eta gero (10-4 eta 10-4).

Areto futbola

FUTSAL SAKANA ARETO FUTBOL TXAPELKETA

Arbizu txapeldun

RACING SAN MIGELEKIN LAUNA BERDINDU ONDOREN, PENALTYETAN GAILENDU ZIREN ARBIZUARRAK

Arbizu dugu Futsal Sakana Areto Futbol Txapelketako txapeldun berria. 7 talde lehiatu dira Uharte Arakilgo pilotalekuan jokatu den areto futbol txapelketan. Leheniketa behin liga jokatu zen eta Racing San Migel talde uhartearra izan zen talde onena. Gero titulua erabakitzeko play off-ak hasi ziren eta ostiral iluntzean jokatu zen play-off-etako final handia. Arbizu Kirol Taldeak eta Racing San Migel jokatu zuten titulua. Partida zirrargarrian launa berdindu zuten bi taldeek eta penaltyetan Arbizuk lortu zuen nagusitzea eta txapelketa irabaztea.

Oso lehiatua

Arbizuren eta Racing San Migelen finala oso lehiatua izan zen. Jokaldi bikainak, golikusgarriak, berdinketa, berdinketa hausteko luzapena eta penaltyak. Denetik izan zuen finalak. Parez pare aritu ziren bi taldeak. Uhartearrak izan ziren aurreratu zirenak, Mike-li esker. Arbizuarrei kosta egin zitzaion, baina Endikak berdintzea lortu zuen eta arbizuarrek jokoan gora egin zuten nabarmen. Josuren pase bikain bati esker Pello Arbizuren bigarren gola sartu zuen, baina atsedendira joan baino lehen Racingeko Rubenek bina berdindu zuen.

Bigarren zatian emozio gehiago izan zen. Enekok 3-2 aurreratu



Arbizu txapelduna eta Racing San Migel txapeldunordea, elkarrekin.

zuen Racing. Baina Pello bere bigarren gola sartu zuen, Arbizuri hiruna berdintzea ahalbideratu ziona. Eta horrela despeditu zen partida. Berehala berdinketa hausteko 5 minutuko luzapenari ekin zioten bi taldeek. Joseba Razkinek Arbizuren 4. tantoa egin zuen. Bazrudien Arbizuk irabaziko zuela, baina partida bukatzeko 24 segundoren faltan Asier Turunbaik launa berdindu zuen.

Penaltyek erabaki zuten

Racing San Migel hasi zen penaltyak jaurtitzen. Danik gola egin zuen, baita Arbizuko Josebak ere. Racingeko Jesus Angelek ere asmatu zuen, eta Arbizuko Jonek, Racingeko Asierrek eta Arbizuko Josuk ere bai. Racingeko Enekok jaurti zuen eta Arbizuko Xabi ate-

zainak geldialdi bikaina egin zuen, eta gol horrek Arbizuri txapelketa irabaztea ahalbideratu zion.

Trofeoak

Arbizuk txapeldunaren trofeoa altxatu zuen eta 1.200 euroko saria jasoko du. Racingendako izan zen txapeldunordeen trofeoa (400 euro). Racingeko Asier Turunbaik txapelketako pitxitxiaren saria jaso zuen eta Arbizuko Xabi Maiza izan da txapelketan gol gutxien jaso dituen atezaina. Kiroltasunaren saria, aldiz, Iturmendirendako izan da (250 euro).

Hurrena, Futsal Sakana Kopa

Ligari Kopak hartuko dio erreleboa. Apirilaren lehendabiziko asteburuan hasiko da, eta 10 talde dauka izena emanda.

Pilota

Eta orain... finalerdietara!

BINAKAKO HASIERAKO LIGAXKA BUKATUTA, XALAK ETA ZUBIETAK URRUTIKOETXEA ETA BEROIZ IZANEN DITUZTE ARERIO FINALERDIETAKO LEHEN JARDUNALDIAN

Binakako hasierako ligaxka. Sailkapena:

Olaizola II.a-Aretxabaleta	11 puntu
Irujo-Barrila	10 puntu
Xala-Zubieta	9 puntu
Urrutikoetxea-Beroiz	6 puntu
Titin III.a-Merino II.a	6 puntu
Berasaluze II.a-Albisu	5 puntu
Ezkurdia-Zabaleta	5 puntu
Saralegi-Ibai Zabala	4 puntu

Binakako finalerdietako I. jardunaldia

Olaizola II.a-Aretxabaleta / Irujo-Barrila (larunbatean, Gasteizen. NITRO)
Xala-Zubieta / Urrutikoetxea-Beroiz (igandean, Eibarren. ETB1)

Bukatu da Binakako hasierako ligaxka. 14 jardunaldi hauetan hobekien moldatu diren lau bikoteek lortu dute finalerdietako ligaxkara pasatzea: Olaizola II.a-Aretxabaleta, Irujo-Barrila, Xala-Zubieta eta Urrutikoetxea-Beroiz.



Urrutikoetxea-Beroizen kontra ariko dira Xala eta Zubieta.

Xala-Zubieta, morala gainezka

Hasierako ligaxkako azken jardunaldian, Xala-Zubietak 22-21 irabazi zieten Berasaluze II.a-Albisuri. Horrela, finalerdietara morala gainezka dutela iritsiko dira. Ligaxkako lehen jardunaldian, Xala-Zubietak Urrutikoetxea-Beroiz izanen dituzte aukari. Hasierako ligaxkan jokatu dako bi partidatan Xala eta Zubieta gailendu ziren (22-20 eta 22-16). Ea finalerditan ere hala gertatzen den.

Ezkurdia-Zabaleta kanpo

Ezkurdia eta Zabaletak ezin izan zuten txapelketa garaipen batekin despeditu, Retegi Biren eta Barriolarren kontra 22-17 galdu baitzuten. Hasieran akats ugari egin zituzten sakandarrek eta 16-3 aurreratu ziren Retegi Bieta Barriola. Nahiz eta gero egoerari buelta ematen saiatu eta 20-17 gerturatu, Retegi Bieta Barriola gailendu ziren. Binakakoari agur esan dio txapelketan nahiko irregular aritu den biko sakandarrak.

Futbola

FEDERATUTAKO TXAPELKETA

3. MAILA

31. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA 2 - CORTES 2

Unai Bakaikoak 9. minutuan aurreratu zuen Lagun Artea. Ongi aritu ziren lakuntzarrak, baina gauzak okertu egin ziren, euren ate propioan gola sartu baitzuten Beteluk eta Lagunen defentsa akats bat baliatuz 1-2 aurreratu baitzen Cortes. Atsedendia baino lehen berdintzea lortu zuen Bakaikoak. Bigarren zatian bi taldeak saiatu ziren, baina puntu berdinketarekin despeditu zen lehia.

Sailkapena >>

1. San Juan	71 p
15. Lagun Artea	32 p

Asteburuko jardunaldia

ERRI BERRI - LAGUN ARTEA
(Igandean, 17:00etan, Erriberrin)

ERREGIONAL MAILA. 4. multzoa

25. JARDUNALDIA

LAGUN ARTEA B 1 - SAN JORGE 3

KIROL SPORT 0 - ALTSASU 0

ETXARRI ARANATZ 0 - VALLE DE EGÜES 2

Lagun Artea B-k eta San Jorgek ligako postua zuten jokoan eta San Jorge gailendu zen. Nahiz eta Lagunek gogo gehiago jarri, kontraeraso batean aurreratu zuen San Jorge. Bigarren zatian San Jorgek bigarrena sartu zuen, baina Lagun Artea B 2-1 gerturatu zen. Tamalez, San Jorgek 3. gola sartu zuen eta horrela despeditu zen lehia. Orkoien husna berdindu zuten Kirol Sportek eta Altsasuk, emaitza justua. Bi taldeek euren aukerak izan zituzten, Altsasuk gehiago, baina ez zuten asmatu. Bukatzeko, Etxarri Aranatz 0-2 irabazi zion Valle de Egüesek. Lehen minutuetan Etxarri Aranatz dominatu zuen eta aukera politik izan zituen, baina ez zituen gauzatu. Bigarren zatian egoera berbera errepikatu zen, baina bukaera aldera, eta bi kontraerasoen ondorioz, 2 gol sartu zituen Valle de Egüesek eta irabazi egin zuen.

Altsasu - Etxarri derbya

Igandean Altsasu eta Etxarriaren arteko derbya jokatu da, 17:00etan, Dantzalekun.

Sailkapena >>

1. Lekunberriko Beti Kozkor	54 p
4. Lagun Artea B	42 p
9. Altsasu	34 p
15. Etxarri Aranatz	23 p

Asteburuko jardunaldia

ARROTXAPEA - LAGUN ARTEA B

(Larunbatean, 16:00etan, Iruñean)

ALTSASU - ETXARRI ARANATZ

(Igandean, 17:00etan, Dantzalekun)



Futbola

SAKANAKO FUTBOL 8 TOPAKETAK

16. jardunaldiaren txanda

Igandean Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak antolatutako kimuen mailako Sakanako Futbol 8 Topaketetako 16. jardunaldia jokatu da Altsasuko Dantzalekun.

16. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Dantzalekun

11:30ean: Lagun Artea - Urdaian

11:30ean: Arbizu K.T. - Kaixo

12:30ean: Etxarri Aranatz - Tipi Tapa

12:30ean: Sayas - Dantzaleku

Atsedean: Txartel

Motoziklismoa



Alex Mariñelarenak Iruñean jarraituko du errekerperazioa

Alex Mariñelarenak pilotu irurtzundarra etxean jarraituko du bere errekerperazio prozesua. Pilotuak istripu oso larria izan zuen Frantziako Paul Ricard zirkuituan, eta Touloneko ospitalean ingresatu zuten. Ostiralean anbulantzia ekarri zuten Nafarroako Unibertsitateko Klinikara. Buruan izandako lesio larriek hobera egin dute, eta, sorbaldan ebakuntza egin beharko diote Alexi, ezkerreko sorbaldan hezurra konpontzeko. "Honek denbora nahikotxo emango du, errehabilitazioan hasi baino lehen lau aste immobilizatuta eman beharko baititu" adierazi zuen Mariñelarenaren Tech3 taldeko Hervé Poncharal managerrak Quatarren. "Kontentunago, oso unezailak pasaditu gulo. Gure desiorik handiena Alex berrero paddockean ikustea da" gaineratu zuen bere managerrak. Munduko Motoziklismo Txapelketa asteburuan hasi zen. Ricky Cardusek ordezkatu zuen irurtzundarra. 12.a sailkatu zen Moto2-n.

Saskibaloia

SAKANAKO I. SASKIBALOI TOPAKETAK

11. jardunaldia Altsasun

Sakanako Mankomunitateko Kirol Zerbitzuak Sakanako I. Saskibaloitopaketak antolatu ditu premini mailako taldeendako (8 urtetik 10 urtera bitarteko neska-mutikoak).

11. jardunaldia

Igandean, Altsasuko Zelandin
11:00etan: Putterri - Balankaleku
11:00etan: Beriain - Martinsasti

Areto futbola

Magnak beharrezkoa zuen garaipena

Magnak 6-4 irabazi zion Umacon Zaragozari eta 5. postuari eusten dio

Ligako azken bi jardunalditan eta Espainiako Kopangaldu eta gero, irabazi beharrean zegoen Magna Nafarroa Xota eta hala egin zuen Umacon Zaragozaren kontra. 6-4 gailendu ziren Imanol Arregiren mutilak. "Taldekegoerari buelta ematen jakin izan du, eta goian mantentzeko 3 puntu oso garrantzitsu lortu ditugu azaldu zuen entrenatzaileak. Inter Movistar da liderra (64 puntu) eta Magna Nafarroa 5.a (37 puntu). Gaur Santiagon jokatu du Magnak, 7.a den Santiago Futsalen kontra.

Txirrindularitza

Jorge Azanzari omenaldi polita



Jorge Azanza.

Jorge Azanza altsasuarra Burunda Txirrindularitza Klubean egin zen txirrindulari. Eta hain zuzen ere, bere kluba zenak omenaldi polita egin nahi izan zion Euskaltel-Euskadi desagertuzenetik talderik gabe geratu den eta txirrindularitza utzi duen Azanzari. Burunda taldearen denboraldi aurkezpen ekitaldian izan zen hori. Azanzaren ibilbideari buruzko bideo bat eman zuten

eta bukaeran oparia egin zioten, "nire bizitza guztian mimo handiarekin gordeko dudana erlojua", 9 urtez txirrindulari profesional izandako Azanzak bere facebook-ean adierazi duenez.

"Burundako aurkezpen horrenbeste ilusioarekin zeuden neska-mutikoak ikustea izugarri gustatu zitzaidan. Nitaz oroitu nintzen. Juan Mari Guajardokeginda-

Rural Kutxari lehen garaipena eman dio Daniel Lopezek

Larunbatean, Laukizen, 36 txirrindulariz osatutako tropela iritsi zen helmugara eta esprint estuan Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko 20 urteko Daniel Lopez galiziarra nagusitu zen, talde sakandarrari denboraldiko lehen garaipena emanaz. Rural Kutxako Juan Jose Tamayo 6.a izan zen, denbora berean. Igandean, Lizarran, Lizarte taldeko Marc Soler bakarrik iritsi zen helmugara (3:09:12). Bigarrena Rural Kutxa-Seguros RGA talde sakandarreko Arnau Sole sartu zen, 28 segundora.

ko elkarrizketan emozionatu nintzen, nire hasierak gogoratu nituelako eta txirrindularitza despeditzen ari nintzela jabetu nintzelako. Oroitzapen politak etorri zitzaizkidan burura. Han zeuden nire txirrindularitza ibilbidean klabeak izandiren hainbat pertsona. Izugarri gustatu zitzaidan Burundako ekprestatutako sorpresa" gaineratu du Azanzak.

Futbola

Etxarriko gazteak txapeladun

LIGA IRABAZI DUTE ETA GAZTE MAILAKO LEHEN MAILARA IGOTZEKO IGOERA FASERAKO SAILKATU DIRA

Bi jardunaldi geratzen dira gazteen mailako 2. mailako liga despeditzeko, baina Etxarri Aranatzek egin ditu etxeko lanak. Duela bi asteburu matematikoki igoera fasea jokatzeke sailkatu ziren, Ardoiren kontra 0-2 irabazi eta gero. Eta azken asteburu honetan, San Cerninekin bana berdindu eta gero, 2. mailako 4. multzoko liga irabaztea lortu du Etxarri (58 puntu). Doneztebe bigarrenari 7 puntu ateratzen dizkio Etxarri. Lakuntzako Lagun Artea 6.a da (38 puntu). Asteburu honetan Etxarri Beti Kozkor izanen du arerio eta Lagunek San Fermin ikastola.

Zorionak Etxarriko gazteei eta



Taldekieak

Etxarriko gazte mailako futbolariak: Andoni Goikoetxea, Lukas Fernandez, Joanes Ijurko, Julen Gonzalez, Iñaki Razkin, Adrian Garcandia, Ander Zelaia, Julen Iragui, Eneko Lopez, Jon Resano, Mikel Maiza, Andoni Agirre, Ivan Cerezo, Jurgi Kintana, Ibai Senar, Asier Estarriaga, Jon Razkin, Mikel Arratibel eta Julen Iriarte. Entrenatzaileak: Iosu Murgiondo eta Jose Guillorme.

ea igoera fasean gauzak ongi doazkien eta gazteen lehen mailara pasatzea lortzen duten. Maila horretan ari dira Altsasuko jubenilak.

Herri kirolak

Herri kirolariak Etxarrin

Nafarroako Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia jokatu zen Etxarrin. 3. jardunaldia Elizondoko pilotalekuak hartuko du, igandean, 11:00etan

Igandean herri kirolariz bete zen Etxarri Aranazkopilotalekua, Nafarroako Herri Kirol Jokoen 2. jardunaldia jokatu baitzen.

Kimuen proba konbinatuan Iñigo Aritza A (7:12) izan zen azkarrena, Iñigo Aritza B-ren aurretik (7:15). Andra Mari 6.a izan zen (7:43). Haurren mailako proba



Andra Mari ikastolako herri kirolari batzuk.

konbinatuan Araxes izan zen azkarrena (9:10), Andra Mari-ren aurretik (9:47). Iñigo Aritza 4.a sailkatu zen (10:08) eta Putterri 5.a (10:09). Eta kadeteetan Basaburuak bukatu zituen lanak lehenengo (10:47). Andra Mari 3.a izan zen (11:36).

Soktirari dagokionez, hau-

rren mailan Iñigo Aritza ibili zen hoberen (5 puntu), Andra Mari-ren aurretik (4 puntu). Eta kadeteetan Andra Mari gailendu zen (3 puntu).

Nafarroako Herri Kirol Jokoen 3. jardunaldia igandean jokatu da, 11:00etan, Elizondoko Baztan pilotalekuan.



Nonerabili

MARI JOSE ILEPAINDEGIA

ARBIZU

Garbitu, moztu eta apaindu 25 €.

FRUITIS FRUTA DENDA

IRURTZUN

10 €ko gastuarekin 2 boleto zozketarako.

EROSKI BIDAIK

ALTSASU

%5eko beherapena, hiri hotelako eta garraio hutsen erreserbak izan ezik. Eskaintza ez metagarria

AMETSA LIBURUDENDA

ETXARRI ARANATZ

%5eko deskontua jostailu eta puzzleetan.

LOPEZ DE GOIKOETXEA HARATEGIA

URDIAIN

50€ko erosketa eginez gero, etxeko produktua opari.

LARKA

ALTSASU

60 €tik gorako erosketetan %10eko deskontu-bale bat hurrengo erosketarako.

LASTAI GASOLINDEGIA

ALTSASU

0,04 €ko deskontua litroko, erregai guztietan.

FORD GABIRONDO

ALTSASU

Olio aldaketetan %30eko deskontua. %15eko deskontua lan mota guztietako eskulantetan.

JAVIER AUTOESKOLA

IRURTZUN

% 10eko deskontua matrikulan.

PATXI GALARZA

IRURTZUN

%5eko deskontua harategian eta supermerkatuan 100 €rengatik txistorra opari.

www.guaixe.net-en zerrenda osoa ikusgai



Natxo de Felipek eta Haize Berriak bandak ipuin musikatu bat ekarriko digute

Larunbatean, 17:00etan eta 18:30ean, Altsasuko lortia kultur gunean

Sergei Prokofiev-ek 1936an, hiru egunetan idatzi zuen *Peru eta Otsoa* obra. Adin guztietako haurrei zuzendutako ipuin musikatu da Oskorriko kantariak eta Sakanako musika bandak eskainiko dutena. Natxo de Felipe narratzailea izanen da eta Haize Berriak bandakomusikariak

kontakizuneko pertsonaiei arima emanen diete. Bi saioretan ipuina euskaraz kontatuko da eta testua gaztelaniaz proiektatuko da.

Prokofiev-en ipuin musikatu-ko protagonista Peru da. Gaztetxo aitona etxean dago bisitan eta abentura bat izateko izugarriko gogoak ditu. Arriskutsua delakotan, aitona belardira bakarrik joatea debekatu egin dio Peruri. Ondorengo musika bidaia baten zati da. Bidaia horretan agertzen diren pertsonaiak bandako instrumentuak irudikatuak izanen dira. Hala, klarineteek Peruren pape-

ra hartuko dute; oboeak ahatea izanen dira; klarinete bakarlariak, katua; txirulak, txoria; tibalak,

ehiztariak; fagotak, aitona eta tro-pa eta tronboiak otsoarena egingen dute.

Pertsonaiak

Peru

Peru gaztetxoari izugarri gustatzen zaizkio loreak, animaliak eta kani-kak. Urtero-urtero, oporretan, bere aitonaengana joaten da egun batzuk pasatzera, Errusiako taiga ondoan dagoen etxolara.

Katua

Nahiko izurria, egun guztia belar luze artean saltoka ibiltzen ohi da. Txoriren bat harrapatzea da bere ametsik zoragarriena.

Txoria

Errusiako zuhaitzikaltuenean bizi da eta ondoko belardira joaten da noizbehinka xixare bila. Airean txirinbuloak egiteaz gain, gogoko-koen duen gaiza abestea da.

Ahatea

Oso berandu ikasi zuen igeri egiten, baina orain maiz egoten da edozein putzutun praktikatzen.

Otsoa

Ausarta eta azkarra, belardi nagusian jaio zen orain dela urte batzuk. Bakarrik ibiltzeko ohitura dauka, ehiztari bila.

Ehiztariak

Urtean bitan elkartzen dira otsoak ehizatzeke asmoz. Peruren aitona etxolatik gertu dagoen herri batean bizi dira.

Aitona

Kazkarro xamarra da eta nahiko gorra. Perurekin xakean aritzea eta sutondoan lokartzea ditu gustuko.

Elkarrizketa

www.guaixe.net-en Haize Berriak-eko kideek Natxo de Felipe-ri egindako elkarrizketa dago.



Eskuratu GUAIXErekin Lorenzo Ondarra bakaikuar organo jolearen diskoak

In Memoriam
Lorenzo Ondarra
(1921 - 2012)



9 €
bazkideak

10,50 €

taldeendako eskaintza

8 €
10 CD eskatuta

Lorenzo Ondarra

Pachelbel
Bach
Elduayen
Donasía
Messiaen
Zimmermann
Clokey
Díez

Nº 2

ESKAERAK: apirilaren 4a baino lehen egin 948 564 275- 948 562 107 telefonoetan edo bierrik@guaixe.net helbidean

Lehenengo eskaerak opari bat jasoko dute

Musika eta umorea ekarriko ditu Pablo Carbonellek

Gaur, 22:30ean Olatziko kultur etxean

La Gangrenosa gitarraren laguntza bakararekin agertuko da gaur Pablo Carbonell Olatzagutiko antzokian. Hurbil, pentsakor eta intimoa agertuko da taula gainean, beti ere, satira eta gizarte-kritika aldean dituela. Ikuskizun pertsonal eta ezberdinean, musika eta umorea tartekatuko dira.

Carbonell polifazetikoak, ukitu surrealista eta kontzertu formatua dituen ikuskizun samurra aurkeztuko du, 2012an argitaratu zuen *Canciones de cerca* diskoa aurkezteko emanaldian. Hura ontzeko hainbaten laguntza izan zuen.

Haurrek bizi dituzten egoerak, haien begietatik



Domekan, 17:00etan, Olatzagutiko kultur etxean

Tdiferencia banatzailearen bidez bihar Olatz tin izanen dira Monika Torre, Ainhoa Ruiz eta Eva Azpilikueta altsasuarra. Aktoreek Eskola ondoko jolasak antzezlanaren emanen dute. Gaur egungo helduen gorabeherak haurrek nola bizi dituzten egoerak islatzen dira antzezlanean. Saio entretenigarrian tarteka umorez, tarteka serio, bizipen horien berri emanen du.

Guztia klaseak bukatu ondoren hasten da, ikastetxeko atarian. Han Daniela eta Carolina zain daude, gurasoren batek jaso eta eskolaz kanpoko jarduerara eramateko zain. Carlotak haiekin gelditzea erabaki du eta jolasten hasi dira helduez duten ikuspegia emanez.

Lau akordeoi ikasleren kontzertua

Bihar, 19:00etan Olatzagutiko kultur etxean

Pablo Sarasate musika kontserbatorioko akordeoi ikasle lau-kote baten kontzertuarekin gozatzeko aukera izanen da bihar Olatzagutiko kultur etxean. Haietako bi etxean ariko dira: Olatzagutian familia duen Nahia Elorza Macias altsasuarra eta Leire Aiestaran Lasa. Aurrena lehen kurtsoan ari da akordeoia ikasten; bigarrena, berri, 6. mailan ari da. Haiekin batera 3. kurtsoko Julen Simon Iriarte (Iruña) eta 6.eko Sandra Erdozain Salon (Abaurrepea) ariko dira. Bakoitzak bere emanaldia eskainiko du.



Egitarauak

www.guaixe.net-en egitarauak ikusgai.

Fisioterapia
Senco
Fisioterapia - Osteopatia - Estructurala - Biszerala - Minen errehabilitazioa

Javier Beloki
Fisioterapeuta - Osteopata

• Fisioterapia
• Osteopatia
• Estructurala - Biszerala
• Minen errehabilitazioa

655 708 916
Burundabidea 3-1B - Etxarri Arantz
sendofisioterapia@gmail.com

Birziklatzeak badu bere ikuskizuna



Bihar, 18:00etan, Irañetako frontoian zirkoa, antzerkia eta musika uztartzen dituen ikuskizuna

Zirika Zirkusek bere azken muntaiaren, Konpost Eroak, hiru aurre-estrenaldi egin ditu

Astelehenean Andra Mari eta San Donato eskoletako 5 eta 8 urte bitarteko haurrei lehen aurre-estrenaldia eskaini eta gero, Ainhoa Juaniz **Beleixe Irratian (FM 107,3)** izan zen. Pozik zen haurrei emanaldia gustatu zitzaielako, taldekideen artean "zerbait hitz egin beharra" sumatu bazuen ere.

Irintarrak azalduzenez, muntai baten benetako mustutzearen aurretik bizpahiru aurre-estrenaldi egin dituzte. Publiko eta

adin tarte ezberdinen aurrean obrak eragiten duen erreakzioak neurtu ahal izateko egiten dute.

Konpost eroak

Hiru pertsonaia ditu Konpost eroak ikuskizunak. Konfuso frantziarra zaborra bereizten ez dakien eta ikasteko ilusio izugarria duen pertsona da. Edukiontzia banatan bizi diren bi pertsona oso ezberdinekin egiten du: Plasti andereño marijakintsua, beti erakusteko prest dagoenak eta Karton jauna, pertsonekin etsiturik, ezkor eta haserre dagoena. Eguna gaizki bereizitako zabor multzo baten artean hasiko dute azken biek. "Tratatua izateko nora bota zalan-tza sortzen duten hondakinak

Fitxa

Kon Fuso Barruso: Txetxu Collado.

Plasti andereñoa: Luis Lainez.

Karton jauna: Ainhoa Juaniz.

Jantziak: Zera2li eta Alazne Juaniz.

Eszenografia: Alazne Juaniz eta Sagri Mauleon.

Kanta: Mr Trufa.

Kantaria: Juanpa Agirre.

Kantuko hitzak: Eneko Lazkoz eta Joseba Beltza.

Koreografia: Haiara Balentzia.

Aholkularitza: Mank-eko Adolfo, Beñat, Olatz eta Itziar.

agertuko dira eszenatokian". Dagokiena trukatu dute. Batek jendeari hondakinak ongi bereizten irakatsi nahi dien bitartean besteak errieta egin nahi die.

Juanizek **Beleixe Irratian (FM 107,3)** azaldu duenez, mustuko dutena "hondakinei eta konpostari buruz hitz egiten duen antzerki-zirkua ikuskizuna da. Ikuskitzuna hezitzailea da, baina Zirika Zirkusen ukituarekin: ongi pasatzeko, maitasun pila batekin egiten ditugu ikuskizunak".

Sortu duten kantari koreografia erraz bat egin diote, haurrekin dantzatu ahal izateko. Tartekatuko diren jolasak ikasteko bidea ematea nahi dute. Berrerabilpen tailerrak eginen dituzte ere saioaren ondoren.

Info + www.guaixe.net

Kantari berrien baratza



Igandean, 18:30ean Etxarri Aranazko kultur etxean Haur eta Gaztetxoan Kantu Jaialdiak

Lakuntzako musika eskolako 2 taldek, Luis Fuentes eskolako 5 taldek eta Aralarko Mikel Donea institutuko 2 taldek parte hartuko dute

Asteburuan hasiko dira Haur eta Gaztetxoan Kantu Jaialdiak. 6 eta 16 urte bitarteko artean kantu zaletasuna sustatzea helburu duten topaketak dira. Bide batez, elkarlanean lan egiteko eta beste herrietako adinkideekin erlazionatzeko aukera ematen dute jaialdiek. Azken finean, parte-hartzaile guztiak euren sormena erakusteko

aukera ematen die antolakuntzak.

Banaka, binaka edo taldeka euskal kantak abesteko aukera izanen dute Nafarroa guztiko kantari txikiek. Lau jaialdi prestatu ditu antolakuntzak. Gainera, abeslariak bilduko dituen Nafarroako azken jaialdi bat ere izanen da, maiatzaren azken asteburuan edo garagarri hasieran.

Jaialdiak Amaia Dominguez Gonzalok antolatu ditu, Tafallako musika irakaslea eta Kantuzale elkartearen kide denak. Nafarroako Gobernuak jaialdiak diru-laguntzarik gabe utzi zituen duela hiru urte eta orduan bera arduratu izan da, Kantuzale elkartearen izenean eta inolako diru-laguntzarik jaso gabe, Haur eta Gaztetxo Kantarien Jaialdien antolaketaz.

Info + www.guaixe.net

DENOK DAKIZKIGUNAK

lactuGOGOETA

"Gure hezurrek kaltzioa behar dutela jakin badakit, beraz kalitatezko kaltzioa ziurtatzen didan esnea erosten dut"

"Horregatik esnea erosterakoan Lacturale aukeratzen dut, ziurtatutako kalitatea"

EVA GRACIA (IRUÑEA),
ALABAK XANIA ETA
YAIZA GARCÍA GRACIA

lacturale



Nafarroako Ekoizpen Integratuan
Ziurtatutako Esnea

Kategoria Gorena

www.lacturale.com

G

asteko >> : eguraldia

ostirala	larunbata	igandea	astelehena	asteartea	asteazkena	osteguna
euria: 10%	euria: 15%	euria: 15%	euria: 8%	euria: 15%	euria: 25%	euria: 65%
Min: 3 Max: 14	Min: 7 Max: 13	Min: 8 Max: 15	Min: 8 Max: 16	Min: 8 Max: 17	Min: 8 Max: 14	Min: 8 Max: 13

: temperatura >>

	Max. °C	Min. °C	euria l/m ²
Irurtzun	22.6	-1.6	132.3
Etxarri A.	21	-1.5	91
Altsasu	13.4	-3.4	68.4
Urbasa	18	-6	70.2

: ilargiaren aldia >>

ilberri	ilgora	ilbete	ilbehera
30	7	15	22

EGOKI
VENTANAS PVC LEIHOAK
www.ventanasegoki.com

KALITATEA - AURREZKIA - EROSOTASUNA
egoki@ventanasegoki.com

948 563 253 Arkinoturri Industrialdea · Olazti ERAKUSKETA: Olite kalea 16 · Iruñea

Acrylcolor
SISTEMA BERRIA

KOLOREA GEHIAGO ETA HOBE

Apiribileko bazkide sarituak

- 1.- **Irune Osinaga Larraza**
(Irurtzun)
- 2.- **Salvador Unanua Ihaben**
(Hiriberri)
- 3.- **Autoservicio Junkal**
(Lakuntza)
- 4.- **Mari Mar Abad Iriarte**
(Altsasu)

APIRIBILEKO SARIAK:

1. Ekainberri kobazulotarako 2 sarrera,
Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza,
Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako 2 sarrera

2. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza,
Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako

eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera
3. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza,
Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako
eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera

4. Gaztezulo aldizkarirako 3 hilabeteko harpidetza,
Lacturale esnea eta yogurtak, Magna Navarrarako
eta Donostiako Aquariumerako 2 sarrera

>> 11 galdera

Ander Huarte Arano

Nafarroako Selekzioko jokalaria

Testua: Maialen Huarte Arano



Elkarrizketa osorik www.guaixe.net-en.

1. Nafarroako Selekzioarekin Murtziara joan zarete otsailaren 27tik martxoaren 2ra. Zer moduz?
Esperientzia berezia eta ona izan da. Jokatu ditugun partida guztien artean, bat irabazi eta beste bat berdindu dugu. Nafarroako beste taldeetako jokalariekin jokatzeari buruz izan da eta jendea ezagutzeko aukera eman digu. Nafarroatik kanpo jokatzeko ere badu bere xarma. Murtzian konturatu ginen, futboleko jokatzeko modu bat baino gehiago dagoela eta horrek esperientzia gehiago izatea ahalbidetzen du.

2. Noiz jaso zenuen Nafarroako Selekziotik lehen deia?
Joan den urteko urrian jaso nuen lehen deia. Denboraldia hasia genuen, bakoitza bere taldearekin ari ginen jokoan. Espainiako gainerako selekzioekin otsailan Murtzian norgehiagoka prestatu zuten, deialdia ere horrek bere iritsi zen. Ordura arte, denboraldian bi aldiz izan ginen selekzioarekin. Lehena, Murtxanten, eguberrietan. Eta, bigarrena, Murtzian, aste txuriarekin batera.

3. Non entrenatzen duzue?
Larrabideko kiroldegian, Iruñean, partidak baino lehenagoko astetan. Ohiko entrenamenduak baino gogorragoak izaten dira eta gehiago landu behar izaten ditugu teknikak. Espainiako txapelketa jokatzeko gehiago exijitzen digu fisikoki eta baita mentalki ere.

4. Nafarroako talde askotako jendea ari zarete.
Osasunako jokalariai dira gehienak. Hein batean talde horrek biltzen ditu Nafarroako jokalariai onenari buruzkoak. Baina, beste taldeetakoak ere deitzen gaituzte. Izan ere, talde bereko hiru jokalariai egon daitezke gehien ere norgehiagoka

batean zelaian. Adin txikiagoko bi jokalarik ere derrigorrez jokatu behar dute. Osasunakoez gain, Donibaneakoak, Burlatakoak, Txantrea, Tafallakoak eta Oberena-koak gaude.

5. Sakanako bi lagun elkartzeko zarete Nafarroako Selekzioan.
Bai, Ibai Armendariz arbizuarra etani, ihabartarra. Ibaiezzen Murtzian aritu, baina elkarrekin ibili ginen Murtxanten. Bertan Kataluniako Selekzioaren aurka eta Errioxakoaren kontra jokatu genuen. Partida zailak izan ziren biak. Katalunia izan zen, oraingoz, talderik indartsuena garaitzeko.

6. Bi talde horiez gain, noren aurka lehiatu zarete?
Murtziaren aurka eta Ceutaren kontra ere aritu gara. Gure aurreko maila dutenez, erosoago aritu ginen eta irabazi ahal izateko aukera gehiago izan genuen.

7. Noiz izanen duzue hurrengo norgehiagoka?
Oraindik ez dugu data zehatza. Gehienetan opor egunak hautatzen dituzte. Espainia mailako txapelketa antolatzen direnean ohiko liga eten egiten da.

8. Noraino iritsi daiteke Nafarroako Selekzioa?
Txapelketa irabazteko aukerak ia agortuak ditugu, baina ez gara postu txarrean geldituko. Lehenengo fasean ez genuen punturik lortu eta horrek jarri gaitu zailtasunean. Bigarrenengoan, aldiz, 4 puntu lortu genituen. Azkeneko fasean pasatzea ez da erraza izanen, baina batek daki.

9. Osasun ere jokatu duzu. Zure borondatez itzuli zara Donibane taldera. Zergatik?
Osasun astean lau egunez joan behar izaten genuen entrenatzera. Ikasketekin partekatze zailtasunak izan nituen. Gauza asko utzi behar dira alde batean Osasun eskatzen duten maila eman ahal izateko. Niknahiago izan nuen, gutxiago entrenatu eta futboleko aritzen nintzenean, presiopean izan ordez, disfrutatze aukera izatea. Osasun, irabaztea da helburua. Beste taldeetan ere bai, baina beste modu batean hartzen dute lehiaketa.

10. Erabaki hori hartuko zenuke berriro?
Egia da Osasunak aukera handiagoak eskaintzen dizkizula futbolari gisa aurrera egin eta teknikak zein jolasteko moduak zabaltzeko. Garai hartan nuen adinarekin eta eskatzen zuten errendimendurik onena egin nuela uste dut. Orain, berriz aukera emanen baldin Osasunara itzultzeko, behin baino gehiagotan hausnartu beharko nuke.

11. Futboleko jokalaria gisa nabarmentzea ez da erraza. Zuk lortu duzu hein batean. Zer espero duzu etorkizuneko?
Gustatzen zaidalako aritzen naiz ni futboleko. Nire helburua ez da beste edonor baino hobea izatea, baina bai aldiz, nire onena ematea. Horregatik, esfortzua eta entrenamendua oso garrantzitsuak dira futbolari gisa hazten segitzeko. Gutxiago gora egiten saiatuko naiz, zaila dela jakin arren, goi mailara iristeko esperantza ez dut galtzen.

MARTXOAK 28-29-30

Sakatxartel
asteburua

Asteburu honetan erabili **Beleixeguaixe txartela** eta sari hauen zozketan parte hartuko duzu!

SARIAK

1.saria: 2 lagunentzako bazkaria Astizko Aterpean eta 2 sarrera Mendukilo Kobazuloetarako

2.saria: Iortia Kultur Guneko zinemarako hilabeteko 2 bono + Beleixeguaixe txartel bat